



Klima Aldaketari buruzko Esparru Konbentzioa

Banak. mugatua
2015eko abenduaren 12a
Euskaraz
Jatorrizkoa: ingelesez

Alderdien Konferentzia

21. saio-aldia

Parisen, 2015eko azaroaren 30etik abenduaren 11ra

Programaren 4 b) gaia

Ekintzak Sendotzeko Durbango Plataforma (1/CP.17 erabakia):

Protokolo bat, bestelako tresna juridiko bat edo adostutako ondorio bat onartzea Konbentzioaren esparruan lege-balioa duena eta Alderdi guztiei aplikagarri zaiena

Pariseko Akordioa onartzea

Presidentearen proposamena

-/CP.21 Erabaki-proiektua

Alderdien Konferentziak,

Gogoan hartuta 1/CP.17 erabakia, Ekintzak Sendotzeko Durbango Plataformaren inguruko Lantalde Berezia ezartzekoa.

Gogoan hartuta, halaber, Konbentzioaren 2, 3 eta 4. artikulua.

Gogoan hartuta, gainera, Alderdien Konferentziak hartutako erabakiak, horien artean, 1/CP.16, 2/CP.18, 1/CP.19 eta 1/CP.20 erabakiak.

Atseginez hartuta Nazio Batuen Batzar Orokorraren A/RES/70/1 ebazpenaren onspena, *Transforming our world: the 2030 Agenda for Sustainable Development* (Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarrirako 2030erako Agenda) izenburua duena, eta, zehazkiago, haren 13. helburua, baita Garapenerako Finantzaketari buruzko Hirugarren Nazioarteko Konferentziako Addis Abebako Jarduera Agendaren eta Hondamendi-arriskuak murrizteko Sendaiko Esparruaren onarpenera ere.

Jakinda klima-aldaketa mehatxu larria dela gizakiontzat eta planetarentzat, eta ondorio itzulezinak ekar ditzakeela, eta, horrenbestez, beharrezkoa dela herrialde guztiek ahalik eta lankidetzat eta parte-hartze handiena izatea, nazioartean erantzun eraginkorra eta egokia emateko, munduko berotegi-efektuko gas-isurketen murrizketa bizkortzeko.

Onartuta Konbentzioaren azken helburua lortzeko munduko emisioak nabarmen gutxiagotu beharko direla, eta klima-aldaketari lehenbailehen aurre egiteko premia azpimarratuta.

Onartuta, halaber, klima-aldaketa gizateria osoaren arazoa dela, eta, horrenbestez, Alderdiek, klima-aldaketari aurre egiteko neurriak hartzean, honako gai hauekiko dituzten betebeharrak errespetatu, bultzatu eta aintzat hartu beharko lituzketela:



giza eskubideak; osasunerako eskubidea; herri indigenen, tokiko komunitateen, migratzaileen, umeen, urritasunak dituzten pertsonen eta urrakortasun-egoeran daudenen eskubideak eta garatzeko eskubidea; baita genero-berdintasuna; emakumeen ahalduntzea eta belaunaldi arteko ekitatea ere.

Jakinda garapen-bidean dauden herrialde diren Alderdien premia eta kezka espezifikoak, hain zuzen erantzuteko neurriak ezartzeak eragindakoak, eta, horrekin lotuta 5/CP.7, 1/CP.10, 1/CP.16 eta 8/CP.17 erabakiak.

Azpmarratuta, eta kezka handiz azpmarratuta ere, behar-beharrezkoa dela honako hauen artean dagoen desfaseari heltzea: Alderdien gas-isurketak murrizteko promesen guztizko eraginaren – 2020rako munduko berotegi-efektuko gas-isurketa orokorren urteko murrizketei dagokienez– eta guztizko isurketek jarraitu beharko luketen ibilbidearen artean. Jarraitu beharko luketen ibilbidetzat jota mundu osoko tenperatura igoerari industrializazio aurreko mailarekiko 2 °C-ko igoeratik behera eustea eta tenperatura igoera industrializazio aurreko mailarekiko 1,5 °C-ko igoerara mugatzea.

Azpmarratuta, halaber, 2020 baino lehenagoko denbora-tartean anbizioa areagotzeko oinarri sendoa finka dezakeela urte horren ondoren anbizio handiagoa ezartzeko.

Azpmarratuta premiazkoa dela Konbentzioaren eta dagokion Kyotoko Protokoloaren ezarpena bizkortzea, 2020 aurreko aldirian anbizioa areagotzeko.

Onartuta behar-beharrezkoa dela herrialde garatuak diren Alderdiek diru-laguntzak, teknologia eta gaitasunak areagotzeko laguntza ematea, modu aurreikusgarrian eman ere, garapen-bidean diren herrialde diren Alderdiei, azken horiek 2020 aurreko ekintzak areagotu ahal izan ditzaten.

Azpmarratuta berehalako eta anbizio handiko ekintzek ekarriko dituzten abantaila iraukorrak; besteak beste, etorkizuneko arintze- eta egokitze-neurrien kostuaren murrizketa nabarmena.

Onartuta beharrezkoa dela energia berriztagarrietarako sarbide unibertsala sustatzea garapen-bidean diren herrialdeetan, bereziki Afrikakoetan, horretarako energia berriztagarriak gehiago zabalduz.

Bat etorrita beharrezkoa dela eskualdeen arteko lankidetzari eta nazioartekoari eustea eta hura sustatzea, klimari aurre egiteko ekintza indartsuago eta anbiziotsuagoa gauzatzeko, bai Alderdi guztien aldetik, bai Alderdi ez diren interesdun guztien aldetik, barnean hartuta gizarte zibila, sektore pribatua, finantza-erakundeak, hiriak eta beste agintari azpinazional batzuk, tokiko komunitateak eta herri indigenak.

I. Onespena

1. *Erabaki du* Pariseko Akordioa (aurrerantzean, «Akordioa») onartzea, eranskinean jasotako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentziori jarraiki.

2. Nazio Batuen idazkari nagusiari *eskatu dio* Akordioaren gordailuzaina izan dadila, eta sinatzeko irekita izan dezala New Yorken (Ameriketako Estatu Batuak), 2016ko apirilaren 22tik 2017ko apirilaren 21era bitartean.

3. Idazkari nagusiari *eskatu dio* goi-mailako zeremonia baterako deialdia egin dezala, 2016ko apirilaren 22an, Akordioa sinatzeko.

4. Halaber, Konbentzioaren Alderdi guztiei *eskatu die* Akordioa ahalik eta lasterren sina dezatela idazkari nagusiak deituko duen zeremonian, baita berau berresteko, onartzeko, onesteko edo hari atxikitzeo tresnak –dagokion bezala– ahalik eta lasterren gordailu ditzatela ere.

5. *Onartzen du* Konbentzioan parte hartu duten Alderdiek behin-behinean aplikatu ahal izango dituztela Akordioaren xedapen guztiak, indarrean jartzen diren bitartean. Hartara, Alderdiei *eskatu die* gordailuzainari eman diezaiotela behin-behineko aplikazio horren berri.

6. *Jabetu da* Ekintzak Sendotzeko Durbango Plataformaren inguruko Lantalde Bereziak amaitu duela bere lana 1/CP.17 erabakiaren 4. lerrokadan xedatutakoari dagokionez.

7. *Erabaki du* Pariseko Akordioa jorrazteko Lantalde Berezia ezartzea. Lantalde horretan, Ekintzak Sendotzeko Durbango Plataforma jorrazteko Lantalde Bereziko mahaikideak hautatzeko aurreikusitako xedapenak aplikatuko dira, *mutatis mutandis*¹.

8. *Halaber, erabaki du* Pariseko Akordioa jorrazteko Lantalde Berezia arduratuko dela Akordioa indarrean jartzeko prestakuntza-lanez, baita Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziaren lehenengo saio-aldirako lanez ere.

9. *Horrez gain, erabaki du* ebazpen honetan eginiko eskaeretatik eratorritako lan-programaren exekuzioa gainbegiratzea.

10. Pariseko Akordioa jorrazteko Lantalde Bereziari *eskatu dio* Alderdien Konferentziari aldizka jakinaraztea euren eginkizunetan eginiko aurrerapenenak, eta eginkizun horiek bukatu ditzala, beranduenez, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziaren lehenengo saio-aldirako.

11. *Erabaki du* Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziak 2016. urtetik aurrera egingo dituela saio-aldiak, Konbentzioaren organo subsidiarioek egingo dituzten saio-aldiekin bat eginez. Halaber, behin-behineko erabakiak prestatuko ditu eta haiek gomendio gisa aurkeztuko dira, Alderdien Konferentziaren bitartez, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentzian, eta lehenengo saioan eztabaidatuko dira, gero onartzeko.

II. Aurreikusitako ekarpenak, nazio-mailan xedaturikoak

12. *Atseginez hartu ditu* 1/CP.19 erabakiaren 2 b) zenbakian zehazten denari jarraiki, Alderdiak aurreikusitako eta nazio-mailan xedaturiko ekarpenak.

13. *Berriz ere eskatu die* oraindik hala egin ez duten Alderdi guztiei Idazkaritzari jakinaraz diezazkiotela nazio-mailan xedaturiko aurreikusitako ekarpenak, ahalik eta lasterren lortzeko Konbentzioaren 2. artikuluan jasotako helburua, eta behar adinako aurrerapenarekin, Alderdien Konferentziak egiten duen 22. saio-aldia (2016ko azaroa) baino lehen, nazio-mailan xedatuta eta aurreikusita dauden ekarpenen argitasuna, gardentasuna eta ulermena handitzeko asmoz.

14. Idazkaritzari *eskatu dio* jarrai dezala Esparru Konbentzioaren webgunean argitaratzen nazio-mailan xedatutako aurreikusitako ekarpenak (Alderdiak jakinarazitakoak).

15. *Berretsi* egin du herrialde garatuak diren Alderdiei, Finantza Mekanismoaren funtzionamenduaz arduratzen diren erakundeei eta zeregin horretaz arduratzeko moduan diren gainerako erakunde guztiei eginiko deialdia, nazio-mailan xedaturiko aurreikusitako ekarpenak prestatzeko eta jakinarazteko laguntza eman diezaieten laguntza hori behar izan dezaketen Alderdiei.

¹ 2/CP.18 erabakiko 2. lerrokadan berretsia.

16. *Kontuan hartu du* nazio-mailan xedaturiko aurreikusitako ekarpenen guztizko eraginari buruzko laburpen-txostena, Alderdiek 2015eko urriaren 1era arte jakinarazitako ekarpenei buruzkoa (FCCC/CP/2015/7 signaturarekin argitaratu da).

17. *Kezkaz ikusten du* nazio-mailan xedaturiko aurreikusitako ekarpenetatik eratorritako berotegi-efektuko gasen 2025eko eta 2030eko estimaturiko guztizko isurketa-mailak ez direla sartzen kostu gutxiagoko 2 °C-ko murrizketa-kasuen baitan; aldiz, 55 gigatonako aurreikusitako maila batera emango lukete 2030ean. *Era berean, jabetzen da* nazio-mailan aurreikusitako ekarpenekin loturikoa baino isurketak murrizteko ahalegin askoz ere handiagoa egin beharko dela munduko tenperaturaren igoera globalari industrializazio aurreko mailekiko 2 °C-ko igoeratik behera eutsi nahi bazaio, isurketak 40 gigatonara murriztuta, edo industrializazio aurreko mailekiko 1,5 °C-ko igoera-muga errespetatu nahi izanez gero, isurketak 21. *infra* lerrokadan adierazitako txosten berezian zehazturiko mailara murriztuta.

18. *Aintzat hartzen ditu*, halaber, testuinguru honetan, garapen-bidean diren herrialdeak diren Alderdi askok adierazitako egokitzapen-premiak, nazio-mailan xedaturiko aurreikusitako ekarpenei dagokienez.

19. Idazkaritzari *eskatu dio* 16. *supra* lerrokadan adierazitako laburpen-txostena egunera dezala, Alderdiek jakinarazitako nazio-mailan xedatutako ekarpenetan jasotako informazio guztia sartu ahal izateko, 1/CP.20 erabakiari jarraiki, 2016ko apirilaren 4ra arte, eta, beranduenez, 2016ko maiatzaren 2an argitara dezala.

20. *Erabaki du* 2018an Alderdien arteko elkarriketa erraztailea antolatzea ahalegin kolektiboen balantzea egiteko eta epe luzera begira helburuaren lorpen-mailari buruz eginiko aurrerapena zehazteko (Akordioaren 4. artikuluko 1. lerrokadan deskribatu da), eta nazio-mailan zehaztutako ekarpenak prestatzen laguntzeko, Akordioaren 4. artikuluko 8. lerrokadan xedatutakoaren arabera.

21. Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeari *eskatu dio* aurkez dezala, 2018an, industrializazio aurreko mailatik gorako 1,5 °C-ko berokuntza global batek eragingo lituzkeen ondorioei eta horrekin lotuta berotegi-efektu munduko gas-isurketek jarraitu beharko lituzketen ibilbideei buruzko txosten berezi bat.

III. Akordioa eraginkor bihurtzeko erabakiak

Arintzea

22. Alderdiei *eskatu die* nazio-mailan xedatutako lehen ekarpenak jakinaraz ditzatela beranduenez Pariseko Akordioa berresteko edo onesteko nahiz horri atxikitze dagozkion tresnak aurkezten dituzten unean. Alderdi batek nazio-mailan xedatutako ekarpen baten berri ematen badu Akordioarekin bat egin baino lehen, xedapen honetan aurreikusitakoa bete duela ulertuko da, betiere Alderdi horrek besterik erabakitzen ez badu.

23. *Eskatu die* nazio-mailan aurreikusitako ekarpenak 1/CP.20 erabakiari jarraiki eta 2025era arteko epearekin aurkeztu dituzten Alderdiei, nazio-mailako ekarpen berri bat zehaztu eta jakinaraz dezatela, beranduenez, 2020rako, eta une horretatik aurrera, bost urtean behin, Akordioaren 4. artikuluko 9. lerrokadan xedatutakoari jarraiki.

24. *Eskatu die* nazio-mailan aurreikusitako ekarpenak 1/CP.20 erabakiari jarraiki eta 2030era arteko epearekin aurkeztu dituzten Alderdiei, ekarpen hori jakinaraz edo egunera dezatela, beranduenez, 2020rako, eta une horretatik aurrera, bost urtean behin, Akordioaren 4. artikuluko 9. lerrokadan xedatutakoari jarraiki.

25. *Erabaki du* Alderdiek Idazkaritzari aurkeztu beharko dizkiotela Akordioaren 4. artikuluan adierazitako nazio-mailan xedatutako ekarpenak, gutxienez, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziaren bilera-saioa egin baino 9-12 hilabete lehenago, ekarpen horien argitasuna, gardentasuna eta ulergarritasuna errazteko

asmoz; besteak beste, Idazkaritzak egingo duen laburpen-txosten baten bidez.

26. Pariseko Akordioari buruzko Lantalde Bereziari *eskatu dio* nazio-mailan xedatutako ekarpenen ezaugarriei buruzko orientazio osagarri batzuk egin ditzala, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentzian horiek aztertu eta lehen saio-aldian onesteko.

27. *Adostu du* beren nazio-mailan xedaturiko ekarpenak jakinarazi dituzten Alderdiak emandako informazioak honakoak bildu ahalko dituela, argitasuna, gardentasuna eta ulergarritasuna bultzatze aldera; besteak beste: erreferentzia-puntuari buruzko informazio kuantifikagarria (hala badagokio, oinarri-urte bat ezarrita), aplikatzeko epeak edo denboratarteak, irismena eta estaldura, plangintza-prozesuak, kasuak eta ikuspuntu metodologikoak, berotegi-efektuko gas-emisio antropogenoak kalkulatu eta zenbatzeko erabilitakoak barne, eta, hala badagokio, xurgatze antropogenoak eta Alderdiak nazio-mailan eginiko kasuan kasuko ekarpena bidezkoztat eta anbizio handikotzat jotzeko arrazoen azalpena, nazio-mailako egoera aintzat hartuta, eta Konbentzioaren 2. artikuluan jasotako helburua lortzen nola laguntzen duen azalduta.

28. Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio* Alderdiak nazio-mailan eginiko ekarpenetan argitasuna, gardentasuna eta ulergarritasuna bultzatzeko aurkeztu beharko dituzten informazioei buruzko orientazio osagarriak egin ditzala, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziak horiek aztertu eta lehen saio-aldian ontzat eman ditzan.

29. Organo Betearazle Subsidiarioari *eskatu dio* Akordioaren 4. artikuluko 12. lerrokadan adierazitako erregistro publikoak funtzionatzeko eta erabiltzeko modalitateak eta prozedurak ezar ditzala, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziak horiek aztertu eta lehen saio-aldian ontzat eman ditzan.

30. Horrez gain, Idazkaritzari *eskatu dio* 2016ko lehen seihilekoan aldi baterako erregistro publikoa sor dezala, Akordioaren 4. artikuluekin bat etorritz aurkeztutako ekarpenak erregistratzeko, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziak 29. *supra* lerrokadan adierazitako modalitateak eta prozedurak ontzat eman arte.

31. Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio*, Konbentzioaren esparruan ezarritako ikuspuntuetan eta horrekin loturiko tresna juridikoetan oinarrituta, nazio-mailan xedaturiko ekarpenen berri Alderdiak zein modutan emango duten ezartzen duten orientazioak zehatz ditzala, Akordioaren 4. artikuluko 13. lerrokadan xedatzen denaren arabera. Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziak lehen saio-aldian aztertu eta onetsi beharko ditu. Horien arabera:

a) Alderdiak emisio eta xurgatze antropogenoak kontabilizatu beharko dituzte, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak ebaluatutako eta Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, onetsitako neurketa-metodologia eta -sistemekin bat etorritz.

b) Alderdiak metodologiaren koherentzia zainduko dute –baita erreferentziazko maileri dagokionez ere– nazio-mailan xedatutako ekarpenen komunikazioaren eta ezarpenaren artean.

c) Alderdiak ahalegindu egingo dira nazio-mailan xedatutako ekarpenetan emisio edo xurgatze antropogenoen kategoria guztiak txertatzen, eta iturri, isurbide edo jardueraren bat zenbatu denean, hura txertatzen jarraitu beharko dute.

d) Emisio edo xurgatze antropogenoen edozein kategoria txertatzen ez bada, Alderdiak azaldu egin beharko dute horren zergatia.

32. *Erabaki du* Alderdiak 31. *supra* lerrokadan adierazitako orientazioak aplikatu beharko dituztela nazio-mailan xedatutako bigarren eta ondorengo ekarpenetan. Alderdiak, era berean, orientazio horiek nazio-mailan xedaturiko lehen ekarpenari aplikatzea erabaki ahalko dute.

33. *Erabaki du, halaber*, organo subsidiarioek aurre egiteko neurriak aplikatzeak

dakartzan ondorioei buruzko foroa antolatzen jarraituko dutela, eta hura Akordioaren zerbitzura egongo dela.

34. *Gainera, erabaki du* Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioak eta Organo Betearazle Subsidiarioak gomendioak egin ahalko dizkiotela Erantzuteko Neurriak Ezartzearen Ondorioei buruzko Foroari, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, aztertu eta bere lehen saio-aldian onar ditzan, Akordioaren baitan hartutako erantzuteko neurriak ezartzeak izandako ondorioei heltzeko modalitateei, lan-programari eta zereginei buruz. Horretarako, Alderdien arteko lankidetzaz bultzatuko du, Akordioaren baitan eginiko arintze-jardueren inpaktua ulertzeko, eta informazioa, esperientziak eta jardunbide-egokiak trukatzeko, inpaktuekiko erresilientzia areagotzeko helburuz.*

36. Alderdiei *eskatu die* Idazkaritzari jakinaraz diezazkiotela, beranduenez 2020an, epe luzerako (mendearen erdialdea) berotegi-efektuko gas-emisio txikiko garapen-estrategiak, Akordioaren 4. artikuluko 19. lerrokadan xedatutakoarekin bat etorriz. Hala, idazkaritzari *eskatu dio* Esparru Konbentzioaren web orrian argitara ditzala berotegi-efektuko gas-emisio txikiko garapen-estrategiak, Alderdiek jakinarazi bezala.

37. Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioari *eskatu dio* Akordioaren 6. artikulua 2. lerrokadan aipatzen diren orientazioak landu eta gomenda ditzala, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, lehen saio-aldian onatzen eman ditzan, eta horietan txerta ditzala kontaketa bikoitzak saihesteko orientazioak, betiere Akordioaren baitan Alderdiek aurkeztu dituzten nazio-mailan xedaturiko ekarpenetan iturrien arabera igorpen antropogenoiei eta hustulekuen arabera xurgatzei dagokienez eginiko egokitzapenekin lotuta.

* 35. lerrokada kendu egin da, eta hurrengo lerrokaden numerazioa eta dokumentuko beste lerrokadei buruzko erreferentziak geroago aldatuko dira.

38. Alderdien Konferentziari *gomendatu dio*, Pariseko Akordioan Alderdien bilkura gisa, Akordioaren 6. artikulua 4. lerrokadan ezarritako mekanismoaren arauak, modalitateak eta prozedurak ontzat eman ditzala. Honako elementu hauek hartuko dituzte barnean:

- a) Alderdi parte-hartzaile bakoitzak baimendutako borondatezko parte-hartzea.
- b) Klima-aldaketa arintzeko benetako etekin neurgarri eta epe luzerakoak sortzea.
- c) Ekintza-esparru zehatzak xedatzea.
- d) Beste modu batera lortuko liratekeen isurketen murrizketekiko osagarriak izango diren murrizketak lortzea.
- e) Izendatutako operazio-erakundeen arintzeko ekintzen ondorioz sortutako emisioen murrizketak egiaztatzea eta ziurtatzea.
- f) Aurretik ezarritako mekanismoak eta Konbentzioaren eta haren legezko instrumentuen baitan onartutako planteamenduei esker eskuratutako esperientzia eta ikasitako lezioak.

39. Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioari *eskatu dio* 38. *supra* lerrokadan adierazitako mekanismoaren arauak, modalitateak eta prozedurak garatu eta gomenda ditzala, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, horiek aztertu eta lehen saio-aldian ontzat eman ditzan.

40. Gainera, Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioari *eskatu dio* lan-programa bat jar dezala abian, Akordioaren 6. artikulua 8. lerrokadan adierazten den merkatuarekin zerikusirik ez duten garapen jasangarriko ikuspegietarako esparruarekin lotuta. Horren xedea, egun dauden loturak indartzeko eta arintze, egokitze, finantzazio, teknologia-transferentzia eta gaitasunaren sustapenaren artean sinergiak lortzeko modua aztertzea da, baita merkatuarekin loturarik ez duten ikuspegi aplikazioa eta koordinazioa errazteko modua ere.

41. Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioari *eskatu dio* 40. *supra* lerrokadan aipatzen den lan-programari buruz erabakitze proiektu bat gomenda dezala, Alderdien iritziak aintzat hartuta, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, berau aztertu eta lehen saio-aldian ontzat eman dezan.

Egokitzea

42. Egokitzeko Batzordeari eta gutxien aurreratuta dauden herrialdeetarako Adituen Taldeari *eskatu die* elkarrekin modalitateak zehaztu ditzatela, garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdien egonkordetako egokitze-ahaleginak aintzatesteko, Akordioaren 7. artikulua 3. lerrokadan xedatzen denari jarraiki, eta gomendioak eman ditzatela Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, horiek aztertu eta lehen saio-aldian ontzat eman ditzan.

43. Egokitzeko Batzordearen agindua eta hiru urteko bigarren lan-plana aintzat hartuta, eta betiere, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa aztertu eta lehenengo saio-aldian onar ditzan, honako hauek *eskatu dizkio* hari:

a) Azter ditzala 2017an egokitzapenarekin loturiko Konbentzioaren baitako hitzarmen instituzionalak, lan horren koherentzia batzeko modua identifikatze aldera, hala badagokio, eta, betiere, Alderdien premiei behar bezala erantzuteko xedez.

b) Egokitzeko beharrianak ebaluatzeko metodologia azter dezala, garapen-bidean diren herrialdeei laguntza emateko, baina bidegabeko kargarik ezarri gabe.

44. Nazio Batuen erakunde guztiei eta nazioarteko, eskualdeko eta nazioko finantza-erakundeei *eskatu die* Alderdiei jakinaraz diezaietela nola txertatzen dituzten klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta klima-erresilientziako babes-neurriak garapenerako laguntzako eta klimarekin loturiko gaiak finantzatzeko programetan.

45. Aldeei *eskatu die* egokitzapen-arloko eskualde-lankidetzak sendotu dezatela eta, beharrezkoa denean, eskualdeko zentroak eta sareak ezar ditzatela, bereziki garapen-bidean diren herrialdeetan, betiere, 1/CP.16 erabakiaren 13. lerrokadan xedatutakoari jarraiki.

46. Egokitzeko Batzordeari eta Gutxien Aurreratuta dauden Herrialdeetarako Adituen Taldeari *eskatu die*, Finantzatzeko Batzorde Iraunkorarekin eta dagozkion beste erakunde batzuen laguntzarekin, metodologiak ezar ditzatela eta gomendioak eman. Ondoren, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, lehen saio-aldian aztertu eta ontzat eman ditzan. Honakoei buruzkoak izango dira metodologiak eta gomendioak:

a) Beharrezko xedapenak ezartzea, garapen-bidean diren herrialdeak Akordioaren 2. artikuluan aipatutako munduko batez besteko tenperatura-igoeraren mugaren testuingurura egokitzeko laguntza martxan jartzea errazteko.

b) Akordioaren 7. artikuluko 14 c) lerrokadan adierazitako Akordioaren egokitzapenaren eta laguntzaren egokitasuna eta eraginkortasuna aztertzea.

47. Halaber, *eskatu dio* Klimaren aldeko Funts Berdeari gutxien aurreratuta dauden herrialdeei eta garapen-bidean dauden herrialdeak diren beste Alderdi batzuei eman beharreko laguntza bizkortzea, egokitzeko plan nazionalak ahal bezain laster sortu ditzaten, 1/CP.16 eta 5/CP.17 erabakiari jarraiki, eta, ondoren, horietan adierazten diren politikak, proiektuak eta programak aplikatu ditzaten.

Kalte-galerak

48. *Erabaki du* Klima Aldaketaren ondorioekin loturiko kalte eta galeretarako Varsoviako Nazioarteko Mekanismoari eustea, 2016. urtean aztertu ondoren.

49. Varsoviako Nazioarteko Mekanismoaren Batzorde Betearazleari *eskatu dio* arriskuaren transferentzia koordinatzeko zentroa ezar dezala, bertan aseguruari eta arriskuaren transferentziari buruzko informazioa gorde ahal izateko; hala, Alderdiek arriskua kudeatzeko estrategia integralak lantzeko eta ezartzeko egin beharreko ahaleginak errazte aldera.

50. Horrez gain, Varsoviako Nazioarteko Mekanismoaren Batzorde Betearazleari *eskatu dio*, dagozkion prozedura eta aginduekin bat etorriz, ezar dezala lantalde berezi bat Konbentzioaren esparruan dauden organismoen eta aditu taldeen (Egokitzeko Batzordea eta Gutxien Aurreratuta dauden Herrialdeetarako Adituen Taldea barne) zein Konbentzioaren esparrutik kanpo aritzen diren erakunde eta aditu talde nagusien lana osatzeko, baliatzeko eta erakunde horiek inplikatzeko, guztien artean klima-aldaketaren eragin negatiboekin loturiko lekualdatzeak saihesteko, minimizatze eta haiei heltzeko irizpideekin loturiko gomendioak lantzeko.

51. Halaber, Varsoviako Nazioarteko Mekanismoaren Batzorde Betearazleari *eskatu dio* egiten duen hurrengo bileran lanean has dadila 49 eta 50. *supra* lerrokadetan agertzen diren xedapenak praktikan jartzeko, eta horren inguruan egindako aurrerapenen berri eman dezala urteko txostenean.

52. *Berretsi du* Akordioaren 8. artikulua ez dakarrela berekin inolako erantzukizun juridikorik edo kalte-galerarik.

Finantzazioa

53. *Erabaki du*, Akordioaren aplikazio-esparruan, garapen-bidean diren herrialdeei ematen zaizkien finantzaketa-baliabideek herrialde horiek klima-aldaketari aurre egiteko dituzten politikak, estrategiak, erregelamenduak eta ekintza-planak eta neurriak praktikan jartzen laguntzea ahalbidetu beharko luketela, bai arintzeari, bai egokitzeari dagokienez, horrela Akordioaren 2. artikuluan jasotakoa lortzen lagunduko luketelako.

54. *Erabaki du, halaber*, Akordioaren 9. artikuluko 3. lerrokadan xedatutakoarekin bat etorritik, herrialde garatuek mobilizazio-helburu kolektiboari eusteko asmoa dutela 2025eraino, egiazko arintze-lanaren eta aplikazio-gardentasunaren testuinguruan. 2025. urtea baino lehen, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziak helburu kolektibo kuantifikatu berri bat ezarriko du, gutxienez urteko 100.000 dolarrekoa izango dena, betiere garapen-bidean diren herrialdeen premiak eta lehentasunak aintzat hartuta.

55. *Onartzen du* garrantzitsua dela finantza-baliabide egokiak eta aurreikusteko modukoak izatea, emaitzetan oinarritutako ordainketak barne, deforestazioak eta basoen narriatzeak eragindako isurketak murriztera zuzenduriko politikak eta pizgarri positiboak ezartzeko, eta kontserbazioaren funtzioa, basoen kudeaketa jasangarria eta basoetako karbono-erreserben areagotzea sustatzeko. Bestalde, honakoak ere garrantzitsuak direla onartu du: politika alternatiboak ezartzea, esaterako basoen kudeaketa integral eta jasangarrirako arintzea eta egokitzea uztartzen duten politikak; politika horiek berekin dakartzaten karbonoarekin zerikusirik gabeko onuren garrantzia azpimarratzea; besteak beste iturri publiko eta pribatuak, aldebiko zein aldeanitzeko laguntza koordinatzea –esaterako Klimarako Funtz Berdea–, baita iturri alternatiboena ere, Alderdien Konferentziak horrekin lotuta hartutako erabakien ildotik.

56. *Erabaki du*, Alderdiak zer informazio eman behar duten erabakitze prozesu bat abiarazteko 22. saio-aldian eta Akordioaren 9. artikuluko 5. lerrokadarekin bat, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziak aztertu eta lehen saio-aldian ontzat eman dezan.

57. *Erabaki du* Akordioaren 9. artikuluko 7. lerrokadari jarraiki ematen den informazioa 96. *infra* lerrokadan adierazitako modalitate, prozedura eta gidalerroen arabera ematen dela zaintzea.

58. Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioari *eskatu dio* esku-hartze publikoen bidez emandako eta mugitutako baliabideen berri emateko moduak ezar ditzala, Akordioaren 9. artikuluko 7. lerrokadarekin bat etorritik, Alderdien Konferentziak 24. saio-aldian (2018ko azaroan) azter ditzan, hain zuzen, gomendio bat egiteko Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, berau aztertu eta lehen saio-aldian ontzat eman ditzan.

59. *Erabaki du* honakoak Akordioaren zerbitzura egongo direla: Klimaren Funtz Berdea eta Munduko Ingurumenerako Funtza, Konbentzioaren Finantza Mekanismoaren funtzionamenduaz arduratzen diren erakundeak, Gutxien Aurreratutako Herrialdeetarako Funtza eta Klima aldaketarako Funtz Berezia; Ingurumenerako Funtzak administratzen ditu adierazitakoak.

60. *Onartu du* Egokitze Funtza Akordioaren zerbitzura egon ahal izango dela, Alderdien Konferentziak, Kyotoko Protokoloaren inguruko Alderdien bilkura gisa, eta Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, hartutako erabakiekin bat etorritik.

61. Alderdien Konferentziari, Kyotoko Protokoloaren inguruko Alderdien bilkura gisa, *eskatu dio* 60. *supra* lerrokadan aipatutako gaia azter dezala eta gomendio bat igor diezaiola Pariseko Akordioaren Alderdien bilkura den Alderdien Konferentziari, lehenengo saio-aldian.

62. Alderdien Konferentziari, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa,

gomendatu dio, orientazioa eman diezaiela Konbentzioaren Finantza Mekanismoaren funtzionamenduz arduratzen diren erakundeei Akordioarekin loturiko politikei, programen lehentasunei eta onargarritasun-irizpideei buruz. Hori Alderdien Konferentziaren bidez helaraziko da.

63. *Erabaki du* Alderdien Konferentziaren erabaki garrantzitsuekin lotutako Konbentzioaren Finantza Mekanismoaren eragiketez arduratzen diren erakundeei emandako orientazioak *mutatis mutandis* ezarriko direla. Akordioa sinatu aurreko erabakiei ere badagokie esandakoak.

64. *Erabaki du*, era berean, Finantza Batzorde Iraunkorra Akordioaren zerbitzura egongo dela, Alderdien Konferentziak agindutako eginkizun eta erantzukizunen arabera.

65. Akordioaren zerbitzura dauden erakundeei *eskatu die* baliabideen koordinazioa eta hornidura hobe dezatela herrialdeek zehazten dituzten estrategiak babesteko eta, horretarako, aplikatzeko eta onartzeko prozedura eraginkor eta sinplifikatuak balia ditzatela, eta etengabeko babesa eman diezaiotela garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdien prestakuntzari, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei eta garapen-bidean diren uharte-estatu txikiei barne.

Teknologiaren garapena eta transferentzia

66. *Kontuan hartu du* Teknologia Batzorde Exekutiboak eginiko behin-behineko txostena, teknologia-beharrizanen ebaluazioen emaitzak martxan jartzea hobetzeko gidalerroei buruzkoa (FCCC/SB/2015/INF.3 signaturarekin banatu da).

67. *Erabaki du* Teknologia Mekanismoa sendotzea, eta Teknologia Batzorde Exekutiboari eta Klimaren Teknologia Zentroari eta Sareari *eskatu die* Akordioa aplikatzeko babesa ematen dutenean, honako lan hauek egiten jarrai dezatela:

- a) Teknologia ikertzen, garatzen eta frogatzen.
- b) Gaitasun eta teknologia endogenoak garatzen eta hobetzen.

68. Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioari *eskatu dio* 44. saio-aldian (2016ko maiatzean) Akordioaren 10. artikuluko 4. lerrokadaren arabera ezarritako esparru teknologikoa egiten has dadila, eta horren ondorioak Alderdien Konferentziari jakinaraz diezazkiola, hark gomendio bat eman diezaion Alderdien Konferentziari, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, berau aztertu eta ontzat eman dezan lehen saio-aldian, kontuan hartuta, besteak beste, esparru horrek honako hauei bide eman beharko liekeela:

a) Teknologia-beharrizanen ebaluazioak egitea eta eguneratzea, eta horien emaitzak modu egokiagoan martxan jartzea, zehazki, ekintza teknologikoak eta proiektuen ideiak. Horretarako, finantza daitezkeen proiektuak prestatuko dira.

b) Teknologia-beharrizanen ebaluazioen emaitzak praktikan jartzeko laguntza finantzarioa eta tekniko areagotzea.

c) Transferitzeko moduan dauden teknologien ebaluazioak.

d) Gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik teknologia egokiak garatzeko eta transferitzeko lekurik egokienak sortzea eta neurriak hartzea teknologia horiek garatzeko eta transferitzeko eragozpenak gainditzeko.

69. *Erabaki du* Teknologia Batzorde Exekutiboak eta Klimaren Teknologia Sareak Alderdien Konferentziari, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, jakinaraziko diotela, organo subsidiarioen bidez, Akordioaren aplikazioarekin loturiko ekintzen berri.

70. *Erabaki du*, halaber, noizean behin ebaluatzea Mekanismo Teknologikoari emandako laguntzaren eraginkortasuna eta egokitasuna, teknologia garatzearekin eta transferitzearekin loturiko Akordioaren alderdiak aplikatzeko emandako babesari dagokionez.

71. Organo Betearazle Subsidiarioari *eskatu dio* saioen 44. aldian, 70. *supra* lerrokadan aipatutako noizean behingo ebaluazioaren irismena eta modalitateak definitzen has dadila. Horretarako, kontuan hartuko dira 2/CP.17 erabakian, VII. eranskinean, 20. lerrokadan, aipatzen den Zentroaren eta Klimaren Teknologia Sarearen azterketa eta Akordioaren 14. artikuluan adierazten den munduko balantzearen modalitateak, Alderdien Konferentziak aztertu eta onar ditzan 25. saio-aldian (2019ko azaroan).

Gaitasuna sustatzea

72. *Erabaki du* Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordea ezartzea. Haren xedea garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdietan gaitasuna sustatzeko neurrien ezarpenean antzematen diren gabezia eta premia zahar eta berriei aurre egitea izango da, eta gaitasuna sustatzeko lana hobetzen jarraitzea, besteak beste, Konbentzioaren esparruan horrekin lotuta eginiko jardueren koordinazioari eta koherentziari dagokienez.

73. *Erabaki du*, halaber, Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordeak zuzendu eta gainbegiratu duela 74. *infra* lerrokadan aipatzen den lan-programa.

74. Horrez gain, *erabaki du* lanerako plan bat martxan jartzea 2016-2020 aldirako. Honako hau izango da planaren xedea:

a) Lankidetzaren bidezko sinergiak areagotzeko moduak aztertzea, baita Konbentzioaren esparruan gaitasuna sustatzeko jarduerak egiten dituzten organoen artean bikoizketak saihestekoak ere. Jarduera horiek, adibidez, Konbentzioaren beste erakunde batzuekin eta Konbentziotik kanpokoekin lankidetzan eginikoak izan ahalko dira.

b) Gaitasunen arloan gabeziak eta beharrianak zehaztea, eta gabezia horiek zuzentzeko moduak gomendatzea.

c) Gaitasuna sustatzeko neurriak exekutatzeko tresnak eta metodologiak landu eta heda daitezzen sustatzea.

d) Munduko, eskualdeko, nazio- eta nazio-azpiko lankidetzaren sustatzea.

e) Gaitasuna sustatzeko eginkizunetatik ateratako jardunbide egokiak, erronkak, esperientziak eta irakaskuntzak zehaztea eta biltzea. Konbentzioaren esparruan ezarritako organoek zehaztuko dituzte.

f) Denborarekin garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiak lurralde osoan gaitasuna sustatzeko eta mantentzeko kontrola beren gain hartu ahal izateko modua aztertzea.

g) Nazio-mailan, eskualdean eta maila azpinazionalean gaitasuna sendotzeko aukerak zehaztea.

h) Konbentzioari dagozkion prozesu eta ekimenen arteko elkarrizketa, koordinazioa, lankidetzaren eta koherentzia sustatzea, zehazki, Konbentzioaren arabera ezarritako organoen gaitasuna sustatzeko ekintza eta estrategiei buruzko informazioa partekatuz.

i) Idazkaritzari orientazioa ematea web-eremuan gaitasuna sustatzeari buruzko ataria mantentzeari eta garatzeari buruz.

75. *Erabaki du* Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordea gaitasuna sustatzeari buruzko elkar truke tekniko aberastuarekin loturiko arlo edo gai batean zentratuko dela urtero, arlo jakin batean gaitasuna eraginkortasunez sustatzeari buruzko esperientzien arrakastari eta erronkei buruz informazio eguneratua eduki ahal izateko.

76. Organo Betearazle Subsidiarioari *eskatu dio* urtean behin Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordearen bilera bat antola dezala bere saio-aldietako batean.

77. Horrez gain, Organo Betearazle Subsidiarioari *eskatu dio* Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordearen erreferentziazko terminoak garatu ditzala gaitasuna sustatzeko esparruaren ezarpenari buruzko hirugarren azterketa zabalaren testuinguruan, betiere 75, 76, 77 eta 78. *supra* eta 82 eta 83. *infra* lerrokadetan ezarritakoari jarraiki. Horren

helburua gai horri buruzko erabakia-proiektu bat gomendatzea izango da Alderdien Konferentziak aztertu eta onar dezan 22. saio-aldian.

78. Alderdiei *eskatu die* Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordearen osarari buruzko iritziak aurkez ditzatela, beranduenez 2016ko martxoaren 9an².

79. Idazkaritzari *eskatu dio* 78. *supra* lerrokadan adierazitako jakinarazpenak bil ditzala MISC serieko dokumentu batean, Organo Betearazle Subsidiarioak 44. saio-aldian azter dezan.

80. *Erabaki du* Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordeak kontuan hartuko dituela, besteak beste, ekarpen hauek: jasotzen dituen jakinarazpenak, gaitasuna sustatzeko esparrua aplikatzeko hirugarren azterketa zabalaren emaitza, idazkaritzaren urteroko laburpen-txostena, gaitasuna sustatzeko esparruaren aplikazioari buruz garapen-bidean diren

² Alderdiek jakinarazpenetarako prestatutako atariaren bidez aurkeztu beharko lituzkete euren iritziak, helbide honetan: <http://www.unfccc.int/5900>.

herrialdeetan, idazkaritzak Konbentzioaren arabera ezarritako organoen gaitasuna sustatzeko eginkizunari buruz eginiko bilketa eta laburpen-txostena, eta Kyotoko Protokoloari nahiz Durbaneko Foroari buruzko txostena eta gaitasuna sustatzeari buruzko ataria.

81. Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordeari *eskatu dio* dagokion eginkizunean lortutako aurrerapenei buruzko urteko txosten teknikoak presta ditzala eta Organo Betearazle Subsidiarioen esku jar ditzala, Alderdien Konferentziarekin bat datozen saio-aldietan.

82. Horrez gain, Alderdien Konferentziari *eskatu dio* 25. saio-aldian (2019ko azaroan) azter ditzala Gaitasuna Sustatzeari buruzko Pariseko Batzordearen aurrerapenak, luzatzeko beharrianak, eraginkortasuna eta hobekuntza, eta har ditzala beharrezkotzat jotzen dituen neurriak Alderdien Konferentziari, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, gomendioak egiteko erakundeen hitzarmenak sendotzeari buruz, gaitasuna sustatzeari dagokionez, Akordioaren 11. artikuluko 5. lerrokadan ezarritakoarekin bat.

83. Alderdi guztiei *aholkatu die* Konbentzioaren 6. artikuluan eta Akordioaren 12. artikuluan adierazten diren publikoaren hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa behar bezala kontuan hartzen direla zain dezatela gaitasunaren sustapen-arloan egiten dituzten ekarpenetan.

84. Alderdien Konferentziari, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura den aldetik, *eskatu dio* lehen saio-aldian publikoaren prestakuntza, sentsibilizazioa eta parte-hartzea sendotu ditzala, eta publikoak informaziorako sarbidea izateko moduak azter ditzala, Akordioaren esparruan duen eginkizuna hobetzeko.

Neurrien gardentasuna eta babesa

85. *Erabaki du* Gardentasunerako Gaitasuna Sustatzeko ekimen bat ezartzea, horren bitartez gaitasun instituzionala eta teknikoa hobetzeko, bai 2020 baino lehen, bai ondoren. Ekimen honek garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei –hala eskatzen dutenei– lagunduko die behar bezala betetzen Akordioaren 13. artikuluan definitzen diren gardentasunaren baldintza irmotuak.

86. *Halaber, erabaki du* Gardentasunerako Gaitasuna Sustatzeko ekimenaren xedea honako hau izatea:

a) Gardentasunarekin loturiko jarduerak gauzatzen dituzten nazio-mailako erakundeak sendotzea, nazio-mailako lehentasunekin bat etorriz.

b) Tresnak, gaitasuna eta laguntza ematea Akordioaren 13. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

c) Denborarekin gardentasuna hobetzen laguntzea.

87. Munduko Ingurumenerako Funtsari *eskatu dio* Gardentasunerako Gaitasuna Sustatzeko Ekimenaren ezarpena eta funtzionamendua babesteko egitura bat osa dezala, informazioa aurrezteaekin loturiko lehentasun gisa. Babes-egitura horrek garapen-bidean diren herrialdeei laguntzeko borondatezko ekarpenak ere bilduko ditu, Munduko Ingurumenerako Funtza hornitzeko seigarren aldian, eta etorkizuneko hornitze-zikloetan, hain zuzen, Munduko Ingurumenerako Funtzaren esparruan dagoen babesa osatzeko.

88. *Erabaki du* Gardentasunerako Gaitasuna Sustatzeko ekimenaren aplikazioa ebaluatzea finantza-mekanismoaren zazpigarren testuinguruan.

89. Munduko Ingurumenerako Funtsari *eskatu dio*, finantza-mekanismoaren funtzionamenduz arduratzen den erakunde gisa, Alderdien Konferentziari zuzendutako urteko txostenean sar ditzala, 2016tik aurrera, 85. *supra* lerrokadan adierazten den Gardentasunerako Gaitasuna Sustatzeko Ekimena diseinatzeko, sortzeko eta martxan jartzeko lanean eginiko aurrerabideak.

90. *Erabaki du*, Akordioaren 13. artikuluko 2. lerrokadarekin bat etorriz, malgutasuna eskaintzea garapen-bidean diren herrialdeei artikuluko horretan xedatutakoak

aplikatzeko; bereziki informazioaren irismenari eta xehetasun-mailari dagokienez, eta hura aurkezteko maiztasunari zein azterketaren irismenari dagokienez. Azterketaren irismenari dagokionez, herrialdeetan eginiko azterketak hautazkoak izateko aukera aurreikus liteke. Malgutasun hori jasoko da 92. *infra* lerrokadan adierazitako modalitateen, gidalerroen eta prozeduren lanketan.

91. Halaber, *erabaki du* Alderdi guztiek, gutxien aurreratuta dauden herrialdeak diren Alderdiek eta garapen-bidean diren uharte-estatu txikiek izan ezik, 13. artikuluko 7, 8, 9 eta 10. lerrokadetan aipatzen den informazioa aurkeztu beharko dutela, dagokion bezala, urtean bi aldiz gutxienez, eta gutxien aurreratuta dauden herrialdeak diren Alderdiek eta uharte-estatu txikiek informazio hori aurkeztu ahal izango dutela, hala nahi izanez gero.

92. Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio* Akordioaren 13. artikuluko 13. lerrokadan aurreikusitako modalitate, prozedura eta gidalerroei buruzko gomendioak egin ditzala, eta lehen azterketa zein urtetan egingo duten zehatz dezala, baita ondorengo azterketen edo eguneratzeen maiztasuna zein izango den zehatz dezala ere, hala badagokio, Alderdien Konferentziak aintzat har dezan bere 24. saio-aldian, hark Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura den Alderdien Konferentziari bidal diezazkion, lehenengo saio-aldian onartzeko.

93. Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio* 92. *supra* lerrokadan adierazitako modalitate, prozedura eta gidalerroei buruzko gomendioak egitean, kontuan har ditzala, besteak beste, honako hauek:

- a) Informazioaren aurkezpenari eta gardentasunari buruz denboran zehar eginiko hobekuntzak jakinarazteak duen garrantzia.
- b) Garapen-bidean diren Alderdiei malgutasuna emateak duen garrantzia, betiere, haien gaitasunak ikusita, halakorik behar badute.
- c) Gardentasuna, zehaztasuna, sakontasuna, koherentzia eta bateragarritasuna sustatzeko beharra.
- d) Alderdiei eta Idazkaritzari begira bikoiztasunak eta karga bidegabeak saihesteko beharra.
- e) Alderdiek txostenak aurkezteko maiztasunari eta aurkeztutako informazioaren kalitateari eutsi diezaiotela zaintzeko beharra, Konbentziotik eratorritako betebeharren arabera.
- f) Bi aldiz zenbatzea ekiditeko beharra.
- g) Ingurumenaren osotasuna bermatzeko beharra.

94. Gainera, Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio*, 92. *supra* lerrokadan adierazten diren modalitateak, prozedurak eta gidalerroak egitean oinarritat har ditzala Konbentzioaren esparruan indarrean diren beste prozesu batzuen esperientziak, eta kontuan har ditzala.

95. Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio* 92. *supra* lerrokadan adierazten diren modalitateak, prozedurak eta gidalerroak egitean, besteak beste, honako hauek kontuan har ditzala:

- a) Zer malgutasun mota duten eskuragarri, beren gaitasunak aintzat hartuta, halakorik behar duten garapen-bidean diren herrialdeek.
- b) Nazio-mailan xedatutako ekarpenean jakinarazitako metodologiaren eta Alderdi bakoitzaren nazio-mailan xedatutako ekarpenak lortzeko egindako aurrerapenen berri emateko erabilitako metodologiaren arteko koherentzia.
- c) Alderdiek dagokien bezala jakinaraztea beren egokitzeko neurriak eta planak, nazio-mailako egokitzapen-planak barne, elkarren artean informazioa eta ikasitako ikasgaiak trukatzeko asmoz.
- d) Egokitzeko nahiz arintzeko emandako laguntzari buruzko informazioa hobetzea, besteak beste, taula-formatu bateratuen bidez, eta aintzat hartuta Aholkularitza Zientifiko eta

Teknologikorako Organo Subsidiarioak informazio finantzarioa aurkezteko erabilitako metodologiei dagokienez aztertutako alderdiak, eta garapen-bidean diren herrialdeek jasotako laguntzari buruz aurkeztutako informazioaren hobekuntza, horien erabilera, ondorioak eta emaitzak barne.

e) Bi urteko ebaluaketetan eta Finantzatzeko Batzorde Iraunkorrek eta Konbentzioaren dagozkion beste organo batzuek eginiko beste txosten batzuetan jasotako informazioa.

f) Aurre egiteko neurriek gizartean eta ekonomian izango dituzten ondorioei buruz aurkeztutako informazioa.

96. Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio* 92. *supra* lerrokadan adierazitako modalitate, prozedura eta gidalerroei buruzko gomendioak egitean, Akordioaren 9. artikulua arabera emandako babesaren gardentasuna susta dezala.

97. Pariseko Akordioaren Lantalde Bereziari *eskatu dio*, gainera, 92. *supra* lerrokadan adierazten diren modalitate, prozedura eta gidalerroekin loturiko eginkizunari dagokionez eginiko aurrerabideen berri emateko Alderdien Konferentziak gerora egingo dituen saio-aldietan, eta eginkizun hori, beranduenez, 2018an amaitzea.

98. *Erabaki du* 92. *supra* lerrokadaren arabera egiten diren modalitate, prozedura eta gidalerroak Pariseko Akordia indarrean jartzen denean hasiko direla aplikatzen.

99. *Erabaki du*, halaber, gardentasun-esparru horretako modalitateak, prozedurak eta gidalerroak 1/CP.16 erabakiari –40-47 lerrokadak eta 60-64 lerrokadak– eta 2/CP.17 erabakiari –12-62 lerrokadak– jarraiki ezarritako neurketa-, jakinarazpen- eta egiaztatze-sisteman oinarritu beharko direla, eta ondoren, ordezkatu egingo dela, bi urteko azken txostenak eta eguneratzeko bi urteko txostenak aurkeztu bezain laster.

Munduko balantzea

100. Pariseko Akordioaren Lantalde Bereziari *eskatu dio* Akordioaren 14. artikuluan aurreikusten den munduko balantzeari eginiko ekarpenak egin ditzaketen iturriak zehatz ditzala eta horri buruzko txostena aurkez dezala Alderdien Konferentzian, hark gomendio bat egin diezaion Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentziari, lehen saio-aldian aztertu eta ontzat eman dezan. Iturri horien artean egongo dira, besteak beste, honakoak:

- a) Honakoei buruzko informazioa:
 - i) Nazio-mailan ezarritako ekarpenen eragin osoa, Alderdiek jakinarazitakoa.
 - ii) Egokitzeko ahaleginen, esperientzien eta lehentasunen egoera, Akordioaren 7. artikuluko 10 eta 11. lerrokadetan aipatutako jakinarazpenak eta Akordioaren 13. artikuluko 7. lerrokadan aipatutako txostenak oinarri hartuta.
 - iii) Babesa mugiaraztea eta ematea.
- b) Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldearen txosten berrienak.
- c) Organo subsidiarioen txostenak.

101. Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioari *eskatu dio* aholkularitza eskaini dezala Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak eginiko ebaluazioek Akordia aplikatzeari buruzko (Akordioaren 14. artikuluan dago jasota) mundu-mailako balantzea egiteko orduan eman dezaketen laguntzari buruz, eta horren berri eman diezaiola Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari, haren bigarren saio-aldian.

102. Horrez gain, Pariseko Akordioaren inguruko Lantalde Bereziari *eskatu dio* Akordioaren 14. artikuluan adierazten den munduko balantzearen modalitateak lan ditzala eta horri buruzko txosten bat aurkez dezala, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, bere lehen saio-aldian aztertu eta onartu ahal izango duen gomendio bat egiteko.

Aplikazioa eta betearazpena erraztea

103. *Erabaki du* Akordioaren 15. artikularen 2. lerrokadan aipatzen den Batzordea 12 kidek osatuko dutela, esparru zientifiko, tekniko, sozioekonomiko edo juridikoan gaitasun handia dutenak. Alderdien Konferentziak aukeratuko ditu, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, ordezkaritza geografiko ekitatiboa oinarri hartuta: Nazio Batuen eskualdeko bost taldeetako bakoitzeko bi kide, garapen-bidean diren uharte-estatu txikietako kide bat, eta gutxien garatuta dauden herrialdeetako kide bat, generoa orekatzeko helburua kontuan hartuta.

104. Pariseko Akordioaren Lantalde Bereziari eskatu dio Batzordearen funtzionamendu eraginkorrerako modalitateak eta prozedurak zehaztu ditzala (Akordioaren 15. artikuluko 2. lerrokadan aipatzen da), modalitate eta prozedura horien gainean dagokion eginkizuna gauzatzeko, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, lehen saio-aldian aztertu eta ontzat eman dezan.

Amaierako klausulak

105. Idazkaritzari *eskatu dio*, Akordioaren 21. artikuluko helburuetarako soilik, bere webgunean argitara dezala, Akordia onesten den egunean, baita Alderdien Konferentziaren 21. saio-aldiaren txostenean ere, Alderdiak Konbentzioari jakinarazitako berotegi-efektuko gas-emisioen gutzitzkoari eta haien ehunekoari buruz duen informazio eguneratuena. Informazio hori Alderdiak Konbentzioari helarazitako nazio-mailako jakinarazpenen bidez, berotegi-efektuko gasen inbentarioei buruzko txostenen bidez eta bi urteko txostenen edo eguneratzeko bi urteko txostenen bidez emandakoa izango da.

IV. Sendotutako ekintzak 2020 aurreko epean

106. *Erabaki du* 2020 aurreko aldiaren arintzeko ahaleginak ahalik eta handienak izan daitezen ziurtatzea. Horretarako:

a) Kyotoko Protokoloko Alderdi guztiei kartsuki gomendatzen die Kyotoko Protokoloari eginiko Dohako zuzenketa berretsi eta aplika dezatela.

b) Eta kartsuki gomendatzen die, hala egin ez duten Alderdi guztiei, Cancuneko Akordioaren esparruan arintzeko promesa egin eta bete dezatela.

c) 1/CP.13 erabakian aurreikusitako hitzartutako ondorioa osatzen duten erabakien aplikazio osoa bizkortzeko bere erabakitasuna berretsi du, 1/CP.19 erabakiaren 3 eta 4. lerrokadetan adierazitakoari jarraiki, baita 2020 aurreko aldiaren anbizioa areagotzeko ere, Konbentzioaren esparruan Alderdi guztiek arintzeko eginiko ahalegina ahalik eta handiena izan dadin lortzeko.

d) Eguneratzeko bi urteko lehenengo txostenik aurkeztu ez duten garapen bidean dauden herrialde diren Alderdiei eskatu die ahalik eta bizkorren aurkez dezatela.

e) Alderdi guztiei eskatu die Cancuneko Akordioaren esparruan ezarritako neurtzeko, jakinarazteko eta egiaztatze prozesuetan parte har dezatela, arintzeko promesak betetzeko eginiko aurrerapenak frogatze aldera.

107. Alderdiei *eskatu die* Alderdien eta Alderdi ez diren interesdunen artean borondatezko balio gabetzea bultzatzea, Kyotoko Protokoloren arabera igorritako unitateak bi aldiz zenbatzea saihestuta, konpromisoaren bigarren aldirako baliozkoak diren emisioen murrizketa ziurtatuak barne.

108. Alderdi jasotzailei eta eskuratzaileei *eskatu die* informazio gardena eman dezatela nazioartean transferitutako arintzeko emaitzei buruz –nazioarteko promesak betetzeko erabili dituztenak barne–, baita Kyotoko Protokoloren arabera igorri diren emisio-unitateei buruz ere, ingurumenaren osotasuna bultzatzeko eta zenbaketa bikoitzak saihesteko helburuz.

109. *Onartzen du* borondatezko arintzeko neurrien balio soziala, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa, baita egokitzapenari, osasunari eta garapen jasangarriari egiten dioten bigarren mailako ekarpena ere.

110. *Erabaki du* 2016-2020 aldian arintzearen azterketa teknikoaren egungo prozesua sendotuko duela. Prozesu hori 1/CP.19 erabakiko 5 a) lerrokadan eta 1/CP.20 erabakiko 19. lerrokadan definituta dago, kontuan hartuta ezagutza zientifiko berrienak. Horretarako:

a) Alderdiei, Konbentzioaren organoei eta nazioarteko erakundeei eskatu die prozesu honetan parte har dezatela, hala badagokio, Alderdiak ez diren interesdunekin lankidetzan arituta; jakinaraz ditzatela beren esperientziak eta iradokizunak, baita eskualdeko ekitaldiei dagokienez ere, eta lagun dezatela prozesu honetan identifikaturiko politikak, praktikak eta neurriak aplikatzen, garapen jasangarrirako lehentasun nazionalekin bat etorritz.

b) Ahaleginak egingo ditu, Alderdiei kontsultatu ostean, garapen-bidean dauden herrialde diren Alderdien adituek eta prozesu honen Alderdietatik ez datozen adituek sarbide hobeia izan dezaten eta bertan parte har dezaten.

c) Teknologia Batzorde Exekutiboari eta Klimaren Zentroari eta Sareari eskatu die, nork bere aginduekin bat etorritz:

i) Aditu teknikoen bileretan parte har dezatela eta ahalegin handiagoa egin dezatela Alderdiei laguntzeko, horretarako prozesu honetan identifikaturiko politikak, jardunbideak eta neurriak eskala handiagotan aplikatzea erraztuta.

ii) Aldizka prozesu honetan aurrez identifikaturiko politiken, jardunbideen eta neurrien aplikazioa errazteko lanean eginiko aurrerabideei buruzko informazio eguneratua ematea aditu teknikoen bileretan.

iii) Prozesu honekin loturiko beren jardueri buruzko informazioa sar dezatela Alderdien Konferentziari aurkezten dioten urteko baterako txostenean.

d) Alderdiei eskatu die Klimaren Teknologia Zentroa eta Sarea modu eraginkorrean erabil ditzatela, hala laguntza lortzeko ikuspegi ekonomikotik, ingurumenetik eta sozialetik bideragarriak izango diren proiektuen proposamenak lantzeko unean. Proiektu horiek prozesu honetan identifikaturiko arintze-potentzial handia duten arloetara zuzendurikoak izango dira.

111. Konbentzioaren Finantza Mekanismoaren funtzionamenduaz arduratzen diren erakundeei *eskatu die* aditu teknikoen bileretan parte har dezatela eta parte-hartzaileei jakinaraz diezaietela nola laguntzen duten azterketa teknikoaren prozesuan identifikaturiko politikak, jardunbideak eta neurriak aplikatzerakoan aurrerapenak egiten.

112. Idazkaritzari *eskatu dio* 110. *supra* lerrokadan aipatzen den prozedura antolatuta eta horren emaitzak zabal ditzala, eta, horretarako:

a) Noizean behin antola ditzala, Teknologiako Batzorde Exekutiboari eta dagokien adituen erakundeei kontsultatuta, jardunbide egokien adierazgarri diren eta hainbat mailatan erreproduzitu eta aplikatu daitezkeen politika, jardunbide eta neurri espezifikoei buruzko aditu teknikoen bilera.

b) Urtero egunera dezala –112 a) *supra* lerrokadan aipaturiko bileren ondoren eta 112 c) *infra* lerrokadan adierazten diren politiken arduradunentzako laburpena prestatzean kontuan hartu ahal izateko garaiz– arintzearen anbizio-maila areagotzera bideraturiko politikek, jardunbideek eta neurriek eskaintzen dituzten arintze-onurei eta bestelakoei buruzko dokumentu tekniko bat. Dokumentu horretan bilduko da, halaber, politika, jardunbide eta neurri horien aplikazioa bultzatzeko aukerei buruzko informazioa, eta berau online eman beharko da, kontsultatzeko erraza den formatu batean.

c) 122. *infra* lerrokadan aipaturiko paladinekin kontsultatuta, politiken arduradunentzako laburpen bat presta dezala honakoei buruz: jardunbide egokienak diren eta hainbat mailatan erreproduzitu eta aplikatu daitezkeen politika, jardunbide eta neurri espezifikoei eta haiek aplikatzea babesteko aukerei buruz, baita egokiak diren lankidetzako ekimenei buruz ere. Laburpen hori, gutxienez, Alderdien Konferentziaren saio-aldi bakoitzako baino bi hilabete lehenago argitaratu beharko du, 121. *infra* lerrokadan adierazitako maila handiko ekitaldiari eginiko ekarpen gisa.

113. *Erabaki du* 110. *supra* lerrokadan aipatutako prozesua Organo Betearazle Subsidiarioak eta Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioak antolatu beharko luketela elkarrekin, eta etenaldirik gabe gauzatu beharko litzatekeela 2020ra arte;

114. Era berean, *erabaki du* 2017an 110. *supra* lerrokadan aipatutako prozesuaren ebaluazioa egitea, haren eraginkortasuna hobetze aldera.

115. *Erabaki du* herrialde garatuak diren Alderdiek finantzazio, teknologia eta gaitasunaren sustapen gisa ematen duten laguntza hobetzea, Alderdien neurrien anbizio-maila areagotzeko 2020 aurreko aldian, eta, horri dagokionez, *zinez eskatu die* herrialde garatuak diren Alderdiei euren babes finantzarioa areagotu dezatela, eta horretarako ibilbide-orri konkretu bat ezar dezatela 2020ra arte urtean elkarrekin arintze- eta egokitze-helburuetarako 100.000 milioi dolarreko ekarpena egiteko xedea lortzera eramango duena, eta, aldi berean, egokitze-xedeetarako finantzazioa nabarmen areagotu dezatela egungo mailei dagokienez, eta laguntza egokia eskain dezatela teknologiaren eta gaitasunaren sustapenaren bitartez.

116. *Erabaki du* elkarriketa lagungarria izatea Alderdien Konferentziaren 22. saio-aldian, 1/CP.19 erabakiaren 3 eta 4. lerrokadak aplikatzearekin lotuta eginiko aurrerabideak ebaluatzeko, eta baliabide finantzarioen hornidura handitzeko aukera egokiak bilatzeko, teknologia garatzeko eta transferitzeko eta gaitasuna sustatzeko babeserako baliabideak barne, Alderdi guztien arintze-ahaleginen anbizioa handitzeko moduak aurkitze aldera; hor bilduko da, halaber, babesa eman eta mobilizatzea areagotuko duten aukera esanguratsuak identifikatzea eta inguru egokiagoak sortzea.

117. *Aintzat hartu ditu* Lima-Paris Jarduera Agendaren emaitzak, Nazio Batuen Erakundearen idazkari nagusiak 2014ko irailaren 23an deitutako klimaren gailurrean oinarriturikoak.

118. *Atseginez hartu ditu* Alderdiak ez diren interesdunek klimari aurre egitera bideratutako beren neurriak areagotzeko eginiko ahaleginak, eta neurri horiek Estatuak ez diren Eragileek Ekintza Klimatikorako Eremuaren³ plataforman erregistratzea *animatu ditu*.

119. Alderdiei *eskatu die* estuki lan egin dezatela Alderdiak ez diren interesdunekin, arintzeko eta egokitzeko eginkizuna sendotuko duten ekintzak katalizatzeko.

120. Alderdiak ez diren interesdunei *eskatu die, halaber*, 110. *supra* eta 125. *infra* lerrokadetan aipatutako prozesuetan parte-hartze handiagoa izan dezatela.

121. 1/CP.20 erabakiaren 21. lerrokadan xedatutakoari jarraiki, goi-mailako ekitaldi bat antolatzea *adostu du*, Lima-Paris Jarduera Agendan oinarrituta eta 2016tik 2020ra bitartean egiten diren Alderdien Konferentziaren saio-aldi bakoitza baliatuta. Ekitaldi horrek eginkizun hauek izango ditu:

a) Are gehiago sendotzea 110. *supra* eta 125. *infra* lerrokadetan aipatutako prozesutik eratorritako neurri eta aukera politikoak aplikatzeko goi-mailako konpromisoa, 112 c) *supra* lerrokadan aipatzen diren politika-arduradunentzat eginiko laburpenean oinarrituta.

b) Borondatezko ekimen, koalizio eta ahalegin berriak edo berrituak iragartzeko aukera ematea, 110. *supra* eta 125. *infra* lerrokadetan aipaturiko eta 112 c) *supra* lerrokadan adierazitako politikaren arduradunentzat eginiko laburpenetan aurkezturiko prozesuetatik eratorritako politikak, jardunbideak eta neurriak aplikatzea barne.

³ <http://climateaction.unfccc.int>.

c) Egindako aurrerapenei buruzko balantze bat egitea eta borondatezko ekimen, koalizio eta ahalegin berri edo berrituak aintzat hartzea.

d) Noizean behin benetako aukerak ematea Alderdien dignatarioek, nazioarteko erakundeek, nazioarteko lankidetzak-ekimenek eta Alderdiak ez diren interesdunek goi-mailako parte-hartze eraginkorra izan dezaten.

122. *Erabaki du* Alderdien Konferentziako presidentearen izenean jardungo duten goi-mailako bi paladin izendatzea. Haien zeregina izango da, 2016-2020 aldian goi-mailako konpromiso indartuen bidez, orain arte ezarritako eraginak behar bezala bete daitezen bermatzea eta borondatezko ahalegin, ekimen eta koalizio berri edo berrituak areagotzea eta txertatzea, eta, horretarako:

a) Idazkaritza Exekutiboarekin eta Alderdien Konferentziako presidente berriekin lankidetzan aritzea 121. *supra* lerrokadan adierazitako goi-mailako urteko ekitaldia koordinatzeko.

b) Alderdi interesdunekin eta Alderdi ez diren interesdunekin hartu-emanak izatea, besteak beste, Lima-Paris Jarduera Agendaren borondatezko ekimenak sustatzeko.

c) Idazkaritzari orientazioa ematea 112 a) *supra* eta 130 a) *infra* lerrokadetan adierazitako aditu teknikoen bilerak antolatuzeko.

123. *Erabaki du, halaber, 122. supra* lerrokadan aipatutako goi-mailako paladinek, oro har, bi urtez eman beharko luketela zerbitzua, eta agintaldiak urte oso batez gainjarriko lirakeela jarraitutasuna bermatzeko, eta, horretarako:

a) Alderdien Konferentziako presidentek 21. saioan paladin bat izendatu beharko luke. Haren agintaldiak urtebete iraungo luke eta izendatzen den egunetik Alderdien Konferentziaren 22. saio-aldiaren azken egunera arte luzatuko litzateke.

b) Alderdien Konferentziaren presidentek, 22. saio-aldian, paladin bat izendatu beharko luke. Haren agintaldiak bi urte iraungo luke, eta izendatzen den egunetik Alderdien Konferentziaren 23. saio-aldiaren azken egunera arte luzatuko litzateke (2017ko azaroa).

c) Une horretatik aurrera, Alderdien Konferentziako ondorengo presidente bakoitzak paladin bat izendatu beharko luke bi urteko agintaldiarekin, eta hark agintaldia amaitu duena ordezkatuko luke.

124. Alderdi interesdun guztiei eta 122. *supra* lerrokadan adierazten diren erakundeei *eskatu die* paladinen eginkizuna babes dezatela.

125. 2016-2020 aldian egokitzapenaren azterketa teknikoaren prozesu bat abiaraztea *erabaki du*.

126. Halaber, *erabaki du* 125. *supra* lerrokadan adierazitako egokitzapenaren azterketa teknikoaren prozesuan erresilientzia indartzeko, urrakortasunak murrizteko eta egokitze-neurrien ulermena eta aplikazioa areagotzeko aukera konkretuak zehazten saiatuko direla.

127. Era berean, *erabaki du* 125. *supra* lerrokadan aipatutako azterketa teknikoaren prozesua batera antolatu beharko luketela Organo Betearazle Subsidiarioak eta Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioak, Egokitzapen Batzordearen zuzendaritzapean.

128. *Erabaki du* 125. *supra* lerrokadan aipatutako prozesua honako hauen bidez gauzatuko dela:

a) Jardunbide egokiak, esperientziak eta ikasitako ikasgaiak elkar trukatzeko lagunduta.

b) Egokitzeko neurrien aplikazioa nabarmen hobetu dezaketeko jarduerak aztertuta, zehazki, dibertsifikazio ekonomikoa handitu eta arintzeko bigarren mailako abantailak sor ditzaketena.

c) Egokitzapenerako lankidetzak sustatzea.

d) Inguru egokiagoak sortzeko aukerak zehaztea eta egokitzapenerako emandako laguntza areagotzea, politika, jardunbide eta neurri espezifikoaren testuinguruan.

129. *Erabaki du*, era berean, 125. *supra* lerrokadan aipatutako egokitzapenaren azterketa teknikoaren prozesuan kontuan hartuko direla 110. *supra* lerrokadan aipatutako arintzearen azterketa teknikoaren prozesutik eratorritako prozesua, modalitateak, produktuak, emaitzak eta irakaskuntzak.

130. Idazkaritzari *eskatu dio* 125. *supra* lerrokadan aipatutako egokitzapenaren azterketa teknikoaren prozesuari laguntza eman diezaiola, eta, horretarako:

a) Noizean behin aditu teknikoaren bilerak antola ditzala, politika, estrategia eta neurri espezifikoari buruz.

b) Urtero presta dezala –130 a) *supra* lerrokadan aipatutako bilerak oinarri hartuta eta garaiz, 112 c) *supra* lerrokadan adierazitako politiken arduradunentzako laburpena prestatzerako prozesuan aintzat hartu ahal izan dadin– egokitzeko neurriak eta haiek aplikatzeko aukerak indartzeko abaguneei buruzko dokumentu tekniko bat. Informazio hori online argitaratu beharko litzateke, kontsultatzeko erraza den formatu batean.

131. *Erabaki du*, 125. *supra* lerrokadan deskribatutako prozesua gauzatzerakoan, Egokitzeko Batzordeak egokitzapenekin lotuta Konbentzioaren baitan dauden lan-programentzat, organoentzat eta erakundeentzat aurretik dauden hitzarmenak hartuko dituela aintzat, haiekin sinergiak eraikiko dituela eta haietan oinarrituko dela, hala koherentzia bermatzeko eta haiei etekinik handiena ateratzeko.

132. *Erabaki du*, gainera, 120. *supra* lerrokadan adierazten den ebaluazioarekin batera, 125. *supra* lerrokadan aipatutako prozesuaren ebaluazioa egitea, eraginkortasuna hobetze aldera.

133. Alderdiei eta erakunde behatzaileei *eskatu die* 126. *supra* lerrokadan adierazitako aukerei buruzko informazioa aurkez dezatela, beranduenez 2016ko otsailaren 3an.

V. Alderdiak ez diren interesdunak

134. *Atseginez hartu ditu* Alderdiak ez diren interesdun guztiek, gizarte zibilekoak, sektore pribatukoak, erakunde finantzarietakoak, hirietakoak eta beste agintari azpinazial batzuetakoak barne, klima-aldaketari aurre egiteko eta erantzuteko neurriak hartzeko eginiko ahaleginak.

135. 134. *supra* lerrokadan aipatutako Alderdiak ez diren interesdunei *eskatu die* ahalegin handiagoa egin dezatela eta isurketak murriztera eta/edo erresilientzia handitzera eta klima-aldaketaren eragin negatiboekiko urrakortasuna murriztera zuzenduriko neurriak babes ditzatela, eta ahalegin horiek ezagutzera eman ditzatela 118. *supra* paragrafoan aipaturiko Estatuak ez diren Eragileen Ekintza Klimatikorako Eremuaren plataformaren bitartez⁴.

136. *Aitortzen du* beharrezkoa dela tokiko komunitateen eta herri indigenen ezagutzak, teknologiak, jardunbideak eta ahaleginak sendotzea klima-aldaketari aurre egin eta erantzuteko, eta plataforma bat *ezarri du* arintzearen eta egokitzaren inguruko esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko, modu holistiko eta integratuan.

137. *Aitortzen du, halaber*, garrantzitsua dela emisioak murrizteko jarduerak sustatzea, besteak beste, politika nazionalen bidez eta karbonoaren prezioa ezarrita.

VI. Administrazioari eta aurrekontuei buruzko hainbat alderdi

138. *Kontuan hartu ditu* Idazkaritzak egin beharreko jarduerak aurrekontuari dagokionez izango dituzten aurreikusitako ondorioak (erabaki honetan aipaturiko jardueraz ari gara) eta eskatu du erabaki honetan Idazkaritzari eskatzen zaizkion jarduerak finantza-baliabideen erabilgarritasunaren arabera gauza daitezela.

139. *Azpimarratu du* behar-beharrezkoa dela baliabide osagarriak jartzea beharrezko

neurriak aplikatu ahal izan daitezten (horien artean erabaki honetan adierazitakoak), eta 9. *supra* lerrokan aipaturiko lan-programa gauzatzeko.

140. Alderdiei *eskatu die* borondatezko ekarpenak egin ditzatela erabaki hau behar bezala aplikatu ahal izateko.

⁴ <http://climateaction.unfccc.int>.

Eranskina

Pariseko Akordioa

Akordio honen Alderdiak,

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko (aurrerantzean, «Konbentzioa») *Alderdi gisa.*

Konbentzioko Alderdien Konferentziaren 17. saio-aldiko 1/CP.17 erabakiaren bitartez ezarritako Ekintzak Sendotzeko Durbango Plataformarekin *bat etorritz.*

Konbentzioaren helburua *gauzatzeko gogoz* eta haren printzipioak oinarri hartuta, ekitatearen eta erantzukizun komun baina ezberdinduen eta bakoitzaren gaitasunen printzipioak barne, herrialde bakoitzaren egoera ezberdinak aintzat hartuta.

Onartuta beharrezkoa dela klima-aldaketak dakarren mehatxu premiazkoaren aurrean erantzun progresibo eta eraginkor bat ematea, eskuragarri dauden ezagutza zientifiko onenetan oinarrituta.

Onartuta, halaber, garapen-bidean dauden herrialde diren Alderdien premia espezifikokoak eta egoera bereziak, batez ere klima-aldaketaren eragin negatiboekiko bereziki kalteberak direnenak, Konbentzioan adierazten den bezala.

Erabat kontuan hartuta gutxien aurreratuta dauden herrialdeek teknologiaren finantzaketarekin eta transferentziarekin lotuta dituzten beharrian espezifikoko eta egoera bereziak.

Onartuta Alderdiak klima-aldaketaren ondorioez gain, hari aurre egiteko hartzen diren neurrien ondorioak ere jasan ditzaketela.

Azpimarratuta lotura estua dagoela klima-aldaketak eragindako neurrien, erantzunen eta ondorioen eta garapen jasangarrirako sarbide ekitatiboaren eta pobrezia erroto kintzearen artean.

Kontuan hartuta elikagai segurtasuna eta gosea desagerraraztea direla funtsezko lehentasunak, eta kontuan hartuta, halaber, elikagaiak ekoizteko sistemen kalteberatasuna klima-aldaketaren ondorio negatiboekiko.

Kontuan hartuta eskulanaren trantsizio bidezkoak eta enplegu duinak eta kalitatezko lanak sortzeak eskatzen duena, nazio-mailan definitutako garapen-lehentasunekin bat etorritz.

Onartuta klima-aldaketa gizateria osoaren arazoa dela, eta horri aurre egiteko neurriak hartzean, Alderdiak errespetatu, bultzatu eta kontuan hartu beharko lituzketela honakoekiko dituzten betebeharrak: giza eskubideak, osasunerako eskubidea, herri indigenen, tokiko komunitateen, migratzaileen, haurren, urritasunak dituzten pertsonen eta egoera zaugarrian daudenen eskubideak, garapenerako eskubidea, eta genero-berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta belaunaldi arteko ekitatea.

Kontuan hartuta Konbentzioan adierazitako berotegi-efektuko gasen hustulekuak eta biltegiak zaintzeak eta handitzeak duen garrantzia.

Ikusita ekosistema guztien osotasuna, ozeanoena barne, bermatzeak eta biodibertsitatea – zenbait kulturak Ama Lurra deitzen dutena– babesteak duen garrantzia, eta aintzat hartuta klima-aldaketari aurre egiteko neurriak ezartzerakoan zenbaitentzat «justizia klimatiko» kontzeptuak duen garrantzia.

Baieztatuta Akordio honetan jorraturiko gaiei dagokienez hezkuntzak, prestakuntzak, jendea kontzientziatzeak eta parte-hartzeak, informazioarekiko sarbide publikoak eta maila guztietako lankidetzak duen garrantzia.

Kontuan hartuta, klima-aldaketari aurre egiteko, gobernuak maila guztien eta eragile guztien konpromisoak, Alderdi bakoitzaren legedia nazionalari jarraiki, duen garrantzia.

Kontuan hartuta, halaber, bizi-estilo eta kontsumo- eta ekoizpen-jarraibide jasangarriak hartzea, betiere herrialde garatuak diren Alderdiak gidaturiko prozesu batean, ekarpen garrantzitsua dela klima-aldaketari aurre egiteko ahaleginari dagokionez.

Honako hau hitzartu dute:

1. artikulua

Akordio honen ondorioetarako, Konbentzioaren 1. artikuluan agertzen diren definizio guztiak aplikatuko dira. Gainera:

1. «Konbentzioa» jartzen duen lekuan ulertuko da New Yorken 1992ko maiatzaren 9an onartutako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaz ari dela.
2. «Alderdien Konferentzia» jartzen duen lekuan ulertuko da Konbentzioaren inguruko Alderdien Konferentziari egiten zaiola erreferentzia.
3. «Alderdi» izango dira Akordio honetako Alderdiak.

2. artikulua

1. Akordio honek Konbentzioaren aplikazioa hobetzen duenez, helburuaren lorpena barne, klima-aldaketaren mehatxuari mundu-mailan ematen zaion erantzuna sendotzea du helburu, garapen jasangarriaren eta pobrezia errotik kentzeko esfortzuen testuinguruan; horretarako, honako hauek egin behar dira:

a) Mundu osoko tenperatura igoerari industrializazio aurreko mailekiko 2 °C-ko igoeratik behera eustea, eta tenperatura igoera industrializazio aurreko mailekiko 1,5 °C-ko igoerara mugatzeko ahaleginekin jarraitzea, horrek klima-aldaketarekin loturiko arriskuak eta haren ondorioak nabarmen murriztuko lituzkeela onartuta.

b) Klima-aldaketaren ondorio negatiboetara egokitzeko gaitasuna areagotzea, eta klimarekiko erresilientzia eta berotegi-efektuko gasen isurketa txikiko garapena sustatzea, betiere elikagaien ekoizpena arriskuan jarri gabe.

c) Finantza-korronteak berotegi-efektuko gasen isurketa txikiak izango dituen eta klimarekiko erresilientea izango den garapen batera eramango duen ibilbidearekiko bateragarriak izan daitezen ahalbidetzea.

2. Akordio hau aplikatzean, ekitatea eta erantzukizun komun baino ezberdinduen eta bakoitzaren gaitasunen printzipioa islatuko dira, herrialde bakoitzaren egoera ezberdinak aintzat hartuta.

3. artikulua

Klima-aldaketari aurre egiteko emandako mundu-mailako erantzunari dagokionez nazio-mailan xedaturiko ekarpenetan, Alderdi guztiek anbizio handiko ahaleginak egin eta jakinarazi beharko dituzte (4, 7, 9, 10, 11 eta 13. artikuluetan definitu dira), 2. artikuluan jasotako Akordioaren helburua lortzeko. Alderdi guztien ahaleginek progresio bat izan beharko dute denboran zehar, Akordio hau behar bezala aplika dadin, garapen bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei laguntzeko beharra aintzat hartuta.

4. artikulua

1. 2. artikuluan ezartzen den tenperaturari buruzko epe luzeko helburua betetzeko, Alderdien asmoa munduko berotegi-efektuko gas-emisioen maila gorenera ahalik eta azkarren iristea da –aintzat hartuta garapen-bidean diren herrialdeek gehiago berandutuko dutela maila horretara iristen–, eta une horretatik aurrera azkar murriztea berotegi-efektuko gas-emisioak, eskuragarri dagoen informazio zientifiko onenarekin bat etorritz; hala, mendearen bigarren erdialdean, oreka lortzeko iturriek eginiko emisio antropogenoen eta hustulekuen xurgatzearen artean, ekitatearen oinarriaren gainean eta garapen jasangarriaren eta pobrezia errotik kentzeko ahaleginen testuinguruan.

2. Alderdi bakoitzak, egitea aurreikusi dituen nazio-mailan xedatutako segidako ekarpenak prestatu, jakinarazi eta mantendu beharko ditu. Alderdiak arintzeko barneko neurriak hartzen ahaleginduko dira, ekarpen horien helburuak lortzeko asmoz.
3. Alderdi bakoitzaren nazio-mailan xedaturiko eta egindako segidako ekarpenek progresio bat izan beharko dute Alderdi horretarako indarrean den nazio-mailan xedaturiko ekarpenarekiko, eta ahalik eta anbizio handiena islatu beharko dute, erantzukizun komun baina ezberdinak eta bakoitzaren gaitasunak eta herrialde bakoitzaren egoera ezberdinak aintzat hartuta.
4. Herrialde garatuek jarraitu beharko lukete ahaleginen buru izaten, eta ekonomiaren osotasunari eragingo dioten isurketak murrizteko xede absolutuak ezartzen. Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek arintzeko ahaleginak areagotzen jarraitu beharko lukete, eta eskatu nahi zaie ekonomia osoari eragingo dioten murrizketa- edo mugatze-helburuak ezar ditzatela, herrialde bakoitzaren egoera aintzat hartuta.
5. Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Aldeei laguntza emango zaie artikulua hau aplikatu dezaten, 9, 10 eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat, eta kontuan hartuta emandako laguntza areagotzeak beren neurrien anbizioa handitzeko aukera emango diela Alderdi horiei.
6. Gutxien aurreratuta dauden herrialdeek eta garapen-bidean diren uharte-estatu txikiek berotegi-efektuko gasen isurketa txikiko garapen baterako estrategiak, planak eta neurriak prestatu eta jakinarazi ahalko dituzte, haietan beren egoera bereziak islatuta.
7. Egokitzeko neurrietatik eta/edo Alderdien dibertsifikazio ekonomikorako planetatik eratorritako bigarren mailako arintze-onurek ekarpena egin ahal izango diote artikulua honen esparruko arintze-abantailei.
8. Nazio-mailan xedaturiko ekarpenak jakinarazterakoan, Alderdi guztiek eman beharko dute funtsezko informazioa, argitasuna, gardentasuna eta ulermena errazte aldera, 1/CP.21 erabakian xedatutakoari jarraiki, eta Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, hartzen dituen erabaki guztietan jokatu beharko dute hala.
9. Alderdi bakoitzak nazio-mailan xedaturiko ekarpen bat jakinarazi beharko du bost urtean behin, 1/CP.21 erabakian xedatutakoari jarraiki, eta Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, hartzen dituen erabaki guztietan jokatu beharko du hala; bestalde, aintzat hartu beharko ditu 14. artikuluan aipaturiko munduko balantzearen emaitzak.
10. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, lehen saioaldian aztertuko ditu nazio-mailan xedaturiko ekarpenetarako ezarritako epe komunak.
11. Alderdiek edozein unetan egokitu ahal izango dute indarrean den nazio-mailan xedaturiko ekarpena, haren anbizio-maila areagotze aldera, eta, betiere, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, ematen duen orientazioari jarraiki.
12. Alderdiek jakinarazitako nazio-mailan xedaturiko ekarpenak Idazkaritzaren ardurapeko erregistro publiko batean jasoko dira.
13. Alderdiek nazio-mailan xedaturiko beren ekarpenen kontuak eman beharko dituzte. Isurketen eta nazio-mailan xedaturiko ekarpenei dagozkien xurgatze antropogenoen kontuak ematerakoan, Alderdiek ingurumenaren osotasuna, gardentasuna, zehaztasuna, sakontasuna, bateragarritasuna eta koherentzia bultzatuko dute, eta bi aldiz zenbatzea gerta dadin saihestuko dute, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, onartzen dituen orientazioekin bat etorriz.
14. Nazio-mailan xedatutako ekarpenen testuinguruan, emisio eta xurgatze antropogenoekin loturiko arintzeko neurriak esleitzean eta aplikatzean, Alderdiek, hala dagokienez, kontuan hartu beharko lituzkete Konbentzioaren esparruan dauden metodoak eta orientazioak, artikulua honen 13. lerrokadan xedatutakoari jarraiki.
15. Akordio hau aplikatzerakoan, Alderdiek kontuan hartu beharko dituzte aurre egiteko neurrien ondorioz beren ekonomietan kalte gehien jasan duten Alderdien kezka; bereziki garapen-bidean diren herrialdeak direnenak.

16. Alderdiek, integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeak eta beren estatu-kideak barne, eta, betiere, artikuluko honetako 2. lerrokadari jarraiki elkarrekin jarduteko akordiora iritsi direnean, Idazkaritzari jakinarazi beharko dizkiote akordio horren baldintzak, nazio-mailan xedaturiko beren ekarpenak jakinarazten dituzten unean. Horretarako, dagokion denboratartean Alderdi bakoitzari esleituriko isurketa-maila adierazi beharko dute. Idazkaritzak, era berean, Alderdiei eta Konbentzioa izenpetu dutenei jakinarazi beharko dizkie baldintza horiek.
17. Akordio horretako alde bakoitza 16. *supra* lerrokadan aipatutako akordioan esleitu zaion isurketa-mailaren erantzule izango da, artikuluko honen 13 eta 14. lerroketan eta 13 eta 15. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.
18. Elkarrekin jarduten duten Alderdiek, integrazio ekonomikoko eskualdeko erakunde baten esparruan egiten badute, eta erakunde hori, aldi berean, Akordio honetako Alderdi bada, integrazio ekonomikoko eskualdeko erakunde horretako eskatu-kide bakoitza bere isurketa-mailaren erantzule izango da, bai modu indibidualean, bai erakunde horrekin batera. Isurketa-maila hori artikuluko honetako 16. lerrokadan ezarritakoari jarraiki jakinarazitako akordioan jasota egongo da, 13 eta 14. lerroketan eta 13 eta 15. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.
19. Alderdi guztiek ahalegina egin beharko lukete berotegi-efektuko gas-isurketa txikiko garapena lortzera eramango duten epe luzeko estrategiak sortzeko eta jakinarazteko, betiere kontuan hartuta 2. artikulua eta aintzat hartuta euren erantzukizun komun baina ezberdinak eta bakoitzaren gaitasunak, herrialdeen egoera desberdinak kontuan izanda.

5. artikulua

1. Alderdiek neurriak hartu beharko lituzkete Konbentzioaren 4. artikuluko 1 d) lerrokadan adierazitako berotegi-efektuko gasen hustulekuak eta biltegiak zaintzeko eta haien kopurua handitzeko, basoak barne.
2. Alderdiei animatzen zaie neurriak har ditzaten Konbentzioaren baitan onarturiko gidalerroetan eta erabakietan ezarritako esparrua aplikatu eta sustatzeko –baita emaitzetan oinarrituriko ordainketen bidez ere–, honako xede hauetarako: deforestazioak eta narriadurak eragindako isurketak murrizteko jardueri zuzendutako politikak eta pizgarri positiboak bultzatzeko, eta basoen kontserbazioaren eta kudeaketa jasangarriaren funtzioa bultzatzeko; basoetako karbono-erreserbak areagotzeko garapen-bidean diren herrialdeeta; baita ikuspegi politiko alternatiboak sustatzeko ere; esaterako, arintzea eta egokitzea uztartzen dituztenak basoen kudeaketa integral eta jasangarrirako, aldi berean, ikuspegi horietatik eratoritzen diren baina karbonoarekin zerikusirik ez duten onurak sustatzeak duen garrantzia azpimarratuta.

6. artikulua

1. Alderdiek onartzen dute Alderdi batzuek aukera izango dutela beren borondatez lankidetzan aritzeko nazio-mailan xedatu dituzten ekarpenak aplikatzeko, hala anbizio handiagoa lortzeko beren arintze- eta egokitze-neurrietan, eta garapen jasangarria eta ingurumenaren osotasuna sustatzeko.
2. Nazio-mailan xedaturiko ekarpenak betetzeko nazioartean transferitutako arintze-emaitzak erabiltzea dakarten lankidetzako ikuspegietan borondatez parte hartzen dutenean, Alderdiek garapen jasangarria bultzatu beharko dute eta ingurumen osotasuna eta gardentasuna bermatu, baita gobernantzan ere, eta kontabilitate sendoa aplikatu beharko dute, besteak beste, bi aldiz zenbatzen ez dela ziurtatzeko, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, ematen dituen orientazioekin bat etorritik.
3. Akordio honi jarraiki, nazio-mailan xedaturiko ekarpenak betetzeko nazioartean transferitutako arintze-emaitzak erabiltzea borondatezkoa izango da, eta Alderdi parte-hartzaileek baimendu beharko dute.
4. Honen bidez, berotegi-efektuko gasen emisioak arintzen laguntzeko eta garapen jasangarriari bide emateko mekanismo bat ezarri da. Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura den Alderdien Konferentziaren mende egongo da hura, eta Alderdiek borondatez erabili ahal

izango dute. Mekanismoa organo batek gainbegiratuko du, hain zuzen, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, izendatutako organoak. Helburu hauek izango ditu:

- a) Berotegi-efektuko gas-isurketak arintzea, eta era berean garapen jasangarria bultzatzea.
 - b) Alderdien baimena duten erakunde publiko eta pribatuak berotegi-efektuko gas-isurketak arintzeko lanetan parte har dezaten bultzatzea eta erraztea.
 - c) Harrera Alderdietan emisio-mailak murrizten laguntzea. Haietan arintze-jarduerak egingo dira eta, hala, isurketen-murrizketak eragingo dira. Murrizketa horiek beste Alderdi batek erabili ahalko ditu nazio-mailan xedaturiko bere ekarpena betetzeko; eta,
 - d) horrez gain, mundu osoko isurketak murriztuko dira.
5. Artikulu honen 4. lerrokadan adierazten den mekanismoak eragiten dituen isurketen murrizketak ez dira erabiliko Alderdi hartzaileak nazio-mailan xedaturiko ekarpena bete duela frogatzeko, baldin eta beste Alderdi batek nazio-mailan xedaturiko bere ekarpena bete duela frogatzeko erabiltzen baditu.
 6. Alderdien Konferentzia, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, arduratuko da artikulu honen 4. lerrokadan adierazten den mekanismoaren esparruan gauzaten diren ekintzetatik sortutako funtsen zati bat administrazioko gastuak ordaintzeko eta klima-aldaketaren kontrako ondorioen aurrean bereziki kalteberak diren eta garapen-bidean dauden herrialde diren Alderdiei laguntzeko egokitzeko kostuak ordaintzeko izan dadin.
 7. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, artikulu honen 4. lerrokadan adierazten den mekanismoaren arauak, modalitateak eta prozedurak onartuko ditu lehen saioan.
 8. Alderdiek onartzen dute garrantzitsua dela merkatuarekin loturarik ez duten ikuspuntuak izatea; ikuspuntu integratu, holistiko eta orekatuak, eta garapen jasangarriaren eta pobrezia errotik kentzearen testuinguruan nazio-mailan xedaturiko ekarpenak betetzen lagunduko dietenak, modu koordinatu eta eraginkorren, besteak beste honakoak baliatuta: arintzea, egokitzea, finantzatzea, teknologia transferitzea eta gaitasuna sustatzea, dagokion bezala. Hona hemen ikuspuntu horien helburua:
 - a) Arintzearekin eta egokitzearekin loturiko anbizioa sustatzea.
 - b) Sektore publiko eta pribatuak nazio-mailan xedaturiko ekarpenen aplikazioan gehiago parte har dezaten ahalbidetzea.
 - c) Aukerak eskaintzea tresna eta akordio instituzional egokiak koordinatzeko.
 9. Honen bidez, esparru bat ezarri da merkatuarekin lotuta ez dauden garapen jasangarrirako ikuspuntuetarako, artikulu honen 8. lerrokadan adierazitako merkatuarekin lotuta ez dauden ikuspuntuak sustatzeko.

7. artikulua

1. Honen bidez, Alderdiek egokitzapenari buruzko mundu-mailako helburua ezarri dute, hau da: egokitzeko gaitasuna areagotzea, erresilientzia indartzea eta klima-aldaketarekiko urrakortasuna murriztea, hala garapen jasangarriari laguntzeko eta egokitzeko erantzun egokia lortzeko, 2. artikuluan aipatzen den tenperaturaren helburuarekin lotuta.
2. Alderdiek onartzen dute egokitzapena guztiei eragiten dien mundu-mailako erronka dela, toki-mailako dimentsioa, dimentsio azpinazionala, nazionala, eskualdekoa eta nazioartekoa duela, eta funtsezkoa dela epe luzera begira klima-aldaketari aurre egiteko mundu-mailan erantzuteko. Erantzun hori ematen laguntzen du, eta helburua da pertsonak, bizimoduak eta ekosistemak babestea, garapen-bidean dauden herrialdeak (klima-aldaketaren ondorio negatibokiko bereziki kalteberak direnak) diren Alderdiek dituzten premiazko eta berehalako beharrianak kontuan hartuta.
3. Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek egiten dituzten egokitzeko ahaleginak

Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilera gisa, bere lehen saio-aldian onartutako modalitateen arabera aitortuko dira.

4. Alderdiek onartzen dute gaur egun egokitzeko beharra nabarmena dela, arintzeko mailen igoerak egokitzeko ahalegin gehigarriak egiteko beharra murriztu dezakeela eta egokitzeko beharrak igotzeak egokitzeko kostu handiagoak ekar ditzakeela.
5. Alderdiek onartzen dute egokitzeko ekintzak herrialdeek bultzaturiko eta genero kontuei arreta jartzen dien planteamendu parte-hartzaile eta erabat gardenen ondotik etorri beharko liratekeela. Ikuspegi horrek aintzat hartu beharko lituzke talde, komunitate eta ekosistema kalteberak, eta eskuragarri dauden ezagutza zientifiko onenak izan beharko lituzke oinarri eta gidari, eta, hala badagokio, ezagutza tradizionalak, biztanle indigenen ezagutzak eta tokiko ezagutza-sistemak, egokitzapena dagokion politika eta ekintza sozioekonomikoetan eta ingurumeneko politika eta ekintzetan txertatzeko ikuspegiarekin.
6. Alderdiek onartzen dute egokitzeko ahaleginen arloko nazioarteko babesa eta lankidetzaren oso garrantzitsua dela, eta halaber dela garrantzitsua garapen bidean dauden herrialdeak diren Alderdien premiak aintzat hartzea; bereziki klima-aldaketaren eragin negatiboekiko kalteberak direnenak.
7. Alderdiek lankidetzaren sendotu beharko lukete egokitzeko lanari indarra emateko, Cancuneko Egokitzapen Esparrua aintzat hartuta, besteak beste, alderdi hauekin lotuta:
 - a) Informazioa, jardunbide egokiak, bereganatutako esperientziak eta ikasgaiak trukatzeko, kasuan kasu, zientziari, plangintzari, politikari eta egokitzeko neurrien aplikazioari dagokienez.
 - b) Erabaki instituzionalak sendotzea, Akordio honen zerbitzura dauden Konbentzioaren barne, informazioaren eta lotutako ezagutzen sintesia egiten laguntzeko, baita Alderdiei orientazioa eta laguntza teknikoa emateko ere.
 - c) Klimari buruzko ezagutza zientifikoak sendotzea –ikerketak, sistema klimatikoaren eta alerta goiztiarren behaketa sistematikoa barne–, zerbitzu klimatikoari informazioa emateko eta erabakiak hartzen laguntzeko moduan.
 - d) Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei laguntza ematea egokitzeko jardunbide eraginkorrak, egokitzeko premiak, lehentasunak, egokitzeko neurrietarako emandako eta jasotako laguntzak eta egindako ahaleginak, eta zailtasunak eta gabeziak zehazteko lanean, eta, hori guztia, jardunbide egokiak sustatzea ahalbidetuko duen modu batean.
 - e) Egokitzeko neurrien eraginkortasuna eta iraupena areagotzea.
8. Nazio Batuetako erakunde espezializatuei eskatzen zaie beren babesa eman diezaietela artikuluko honetako 7. lerrokadan aipaturiko neurriak gauzatzeko Alderdiek eginiko ahaleginei, 5. lerrokadan adierazitakoa aintzat hartuta.
9. Alderdi bakoitzak, hala dagokionean, egokitzapena planifikatzeko prozesuak ezarri beharko ditu, baita hainbat neurri hartu ere; esaterako, dagokion planak, politikak edo ekarpenak sortzea edo hobetzea. Aurrekoak, honako hauek bildu ahalko ditu:
 - a) Egokitzeko neurriak, ekimenak eta/edo ahaleginak aplikatzea.
 - b) Egokitzeko nazio-mailako planak sortu eta gauzatzeko prozesua.
 - c) Klima-aldaketaren eta harekiko urrakortasunaren eraginak ebaluatzea, nazio-mailan xedatutako lehentasuneko neurriak proposatzeko, pertsona, leku eta ekosistema kalteberak kontuan hartuta.
 - d) Egokitzeko planak, politikak, programak eta neurriak zaintzea eta ebaluatzea, eta dagokion irakaskuntzak ateratzea.
 - e) Sistema sozioekonomiko eta ekologikoen erresilientzia areagotzea, bereziki dibertsifikazio ekonomikoaren eta natura-baliabideen kudeaketa jasangarriaren bidez.
10. Alderdi bakoitzak, hala dagokionean, egokitzapenari buruzko jakinarazpen bat aurkeztu eta eguneratu beharko luke tarteka. Hala, bere lehentasunak, aplikatzeko eta laguntzeko

beharrizanak, planak eta neurriak bildu ahalko ditu bertan, karga osagarriak ekarri gabe garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei.

11. Artikulu honen 10. lerrokadan aipatzen den egokitzapenari buruzko jakinarazpena, hala badagokio, noizean behin aurkeztu edo eguneratuko da, beste komunikazio edo dokumentu batzuen osagai gisa; esate baterako, egokitzeko nazioko plan baten moduan, 2. lerrokadako 4. artikuluan aurreikusitako nazioko ekarpen jakin baten moduan edo horiekin guztiekin batera.
12. Artikulu honen 10. lerrokadan adierazitako egokitzapenari buruzko jakinarazpena Idazkaritzak kudeaturiko erregistro publiko batean inskribatu beharko da.
13. Nazioarteko laguntza etengabea eta indartua emango zaie garapen-bidean dauden Alderdiei, artikulu honetako 7, 9, 10 eta 11. lerrokadak aplikatzen, 9, 10 eta 11. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.
14. 14. artikuluan adierazten den munduko balantzeak, besteak beste, honako hauek egin beharko ditu:
 - a) Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdien egokitzeko beharrizanak aitortu.
 - b) Egokitzeko neurrien aplikazioa hobetu, artikulu honen 10. lerrokadan aipatutako egokitzeari buruzko jakinarazpena kontuan hartuta.
 - c) Horretarako eginiko egokitzapenaren eta laguntzaren egokitasuna eta eraginkortasuna aztertu.
 - d) Artikulu honen 1. lerrokadan azaltzen den egokitzapenari buruzko munduko helburua lortzeko eginiko aurrerabide orokorrak aztertu.

8. artikulua

1. Alderdiek onartzen dute garrantzi handia duela klima-aldaketaren eragin negatiboekin loturiko kalteak eta galerak saihesteak, ahalik eta gehien murrizteak eta haiei aurre egiteak. Eragin negatibo horien barruan sartuko lirateke muturreko fenomeno meteorologikoak eta bilakaera mantsokoak. Halaber aitortzen dute garrantzi handia duela garapen jasangarriak kalteen eta galeren arriskuaren murrizketari eginiko ekarpenak.
2. Klima Aldaketaren Ondorioekin loturiko Kalte-galeretarako Varsoviako Nazioarteko Mekanismoak Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura den Alderdien Konferentziaren agintaritza eta orientazioaren pean jardungo du, eta zehazten denaren arabera hobetu eta sendotu ahal izango da.
3. Alderdiek ulermena, neurriak eta babesak indartu beharko lituzkete, modu kooperatibo eta errazean indartu ere, besteak beste Varsoviako Nazioarteko Mekanismoaren bitartez, betiere klima-aldaketaren ondorio negatiboekin loturiko kalte-galerei dagokienez.
4. Horrenbestez, ulergarritasuna, neurriak eta laguntza modu kooperatibo eta errazean landu behar diren esferetan, honako hauek bil daitezke:
 - a) Alerta goiztiarraren sistemak.
 - b) Larrialdi-egoeretarako prestakuntza.
 - c) Bilakaera moteleko fenomenoak.
 - d) Kalte-galera iraunkor eta itzulezinak eragin ditzaketen fenomenoak.
 - e) Arriskuaren ebaluazio eta kudeaketa integrala.
 - f) Arrisku-aseguruen zerbitzuak, arrisku klimatikoa erkidetzea eta aseguruaren esparruko beste konponbide batzuk.
 - g) Galera ez ekonomikoak.
 - h) Komunitateen, bizimoduaren eta ekosistemen erresilientzia.
5. Varsoviako Nazioarteko Mekanismoa lankidetzan arituko da Konbentzioaren esparruan dauden organo eta adituen taldeekin, bai eta Konbentziotik at jarduten duten adituen

erakunde eskudunekin eta elkarrekin ere.

9. artikulua

1. Herrialde garatuak diren Alderdiek finantza-baliabideak eman beharko dizkiete garapen-bidean dauden herrialde diren Alderdiei, arintzeko nahiz egokitzeko neurrietan laguntza emateko, eta, hala, Konbentzioak ezarritako betebeharrak betetzen jarraitzeko.
2. Beste Alderdi batzuei laguntza hori beren borondatez emateko edo ematen jarraitzeko animatzen zaie.
3. Mundu-mailako ahaleginaren esparruan, herrialde garatuak diren Alderdiek klimaren aldeko finantzaketa bideratzeko ahaleginen bultzatzaile nagusi izaten jarraitu beharko lukete, horretarako hainbat iturri, tresna eta bide erabilita, eta funts publikoek duten garrantzi itzela aintzat hartuta. Finantzaketa hori bideratzeko hainbat neurri hartu ahalko dituzte; besteak beste, herrialdeek zuzenduriko estrategiak babestea. Bestalde, garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdien premiak eta lehenetsunak hartu beharko dituzte kontuan. Klimaren alde finantzazioa bideratzeko ekintza horrek progresio bat jarraitu beharko du aurreko ahaleginekiko.
4. Finantza-baliabide gehiago ematerakoan, oreka bilatu beharko da egokitzapenaren eta arintzearen artean, herrialdeetan ezartzen diren estrategiak eta garapen-bidean dauden herrialde diren Alderdien lehenetsunak eta beharrianak aintzat hartuta, bereziki klima-aldaketaren eragin negatiboen aurrean urrakorrako direnenak eta gaitasun-muga esanguratsuak dituztenenak; besteak beste, gutxien aurreratuta dauden herrialdeak eta garapen-bidean diren uharte-estatu txikiak, kontuan hartuta dohaintzan emandako baliabide publikoak behar dituztela.
5. Herrialde garatuak diren Aldeek bi urtetik behin jakinarazi beharko dute informazio adierazgarria, kuantitatiboa eta kualitatiboa, artikuluko honen 1. eta 3. lerrokadetan xedatzen denarekin bat etorriz. Informazio horretan garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei bideratuko zaizkien aurreikusitako baliabide finantzarioen mailak bilduko dira, haren berri dagoenean. Baliabideak ematen dituzten beste Alderdiei eskatzen zaie informazio hori eman dezatela, bi urtean behin, eta borondatez.
6. 14. artikuluan adierazten den munduko balantzean kontuan hartuko da herrialde garatuak diren Alderdiek eta klimaren aldeko finantzaketarekin loturiko ahaleginei buruzko Akordioaren organoek ematen duten informazioa.
7. Herrialde garatuak diren Alderdiek, bi urtetik behin, informazio gardena eta koherentea eman beharko dute garapen-bidean dauden herrialde diren Alderdiei emandako laguntzari buruz, baldin eta laguntza hori esku-hartze publikoen bidez eman bada, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, bere lehenengo saio-aldian onarturiko modalitateei, prozedurei eta jarraibideei jarraiki, 13. artikuluko 13. lerrokadan xedatu bezala. Beste Alderdi batzuei eskatzen zaie gauza bera egin dezatela.
8. Konbentzioaren Finantza Mekanismoak eratuko du, bere funtzionamenduaz arduratzen diren erakundeekin batera, Akordio honen finantza-mekanismoa.
9. Akordio honen zerbitzura dauden erakundeak, Konbentzioaren Finantza Mekanismoaren funtzionamenduaz arduratzen diren erakundeak barne, garapen-bidean diren herrialdeei –eta, bereziki, gutxien aurreratuta dauden herrialdeei eta garapen-bidean diren uharte-estatu txiki- finantza-baliabideetarako sarbide eraginkorra ematen ahaleginduko dira (onartze-prozedura sinpletu baten bidez), baita prestakuntzarako laguntza handiagoa ere, klimari buruzko beren plan eta estrategia nazionalen testuinguruan.

10. artikulua

1. Alderdiek epe luzerako ikuspuntu bat partekatzen dute: teknologiaren garapena eta transferentzia erabat eraginkor egitea, klima-aldaketarako erresilientzia hobetzeko eta berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko.

2. Alderdiek, aintzat hartuta zer nolako garrantzia duen teknologiak Akordio honen arabera arintzeko eta egokitzeko neurriak martxan jartzeko, eta aintzat hartuta, halaber, dagoeneko egiten ari diren teknologiaren hedapen- eta zabaltze-ahaleginak, garapenerako lankidetzara eta teknologiaren transferentzia indartu beharko dituzte.
3. Konbentzioaren harira ezarritako Mekanismo Teknologikoa Akordio honen zerbitzura egongo da.
4. Honen bidez, esparru teknologiko bat ezarri da Mekanismo Teknologikoari orientazio orokorra emateko teknologiaren garapena eta transferentzia sendotzea bultzatzeko eta errazteko lanean, horrekin Akordio hau aplikatu dadin sustatzeko, artikuluko honetako 1. lerroan adierazitako epe luzeko ikuspegi egia bilakatze aldera.
5. Klima-aldaketari erantzun eraginkorra eta epe luzera begirakoa emateko, eta hazkunde ekonomikoari eta garapen jasangarriari bide emateko, ezinbestekoa da berrikuntza ahalbidetzea eta bizkortzea. Ahalegin hori dagokion bezala babesteko da, besteak beste, Mekanismo Teknologikoaren bidez eta Konbentzioaren Finantza Mekanismoen finantza-baliabideen bitartez. Helburua da ikerketa- eta garapen-eginkizunetan ikuspuntu kolaboratiboak sustatzea, eta garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek teknologiarako sarbidea izan dezaten erraztea, bereziki ziklo teknologikoaren lehen etapetan.
6. Artikulu hau aplikatzeko laguntza emango zaie, baita finantzarioa ere, garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei, besteak beste, ziklo teknologikoaren etapa ezberdinetan teknologiaren garapena eta transferentzia indartzeko, arintzeari eta egokitzeari bideraturiko babesen artean oreka lortze aldera. 14. artikuluan adierazten den munduko balantzean kontuan hartuko da teknologiaren garapenarekin eta transferentziarekin lotuta garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei emandako babesarekin loturiko ahaleginei buruz jakinarazitako informazioa.

11. artikulua

1. Akordio honen esparruan gaitasuna sustatzeak garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdien gaitasunak eta eskumenak hobetu beharko lituzke, bereziki gaitasun gutxien dutenak (gutxien aurreratutako herrialdeak eta klima-aldaketaren eragin negatiboekiko zaurgarrien direnak kasu; esaterako, garapen-bidean diren uharte-estatu txikiak), klima-aldaketaren aurka ekintza eraginkorak gauzatzeko; besteak beste, egokitzeko eta arintzeko neurriak ezartzeko. Horretaz gain, gaitasuna sustatzeak teknologia garatzea, hedatzea eta zabaltzea erraztu beharko luke, baita klimaren aldeko finantzaziorako sarbidea, horrekin loturiko publikoaren hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioaren alderdiak, eta informazioa modu garden, egoki eta zorrotzean jakinaraztea ere.
2. Gaitasunaren sustapenak herrialdeen kontrolpean egon beharko luke, nazio-mailako beharrezanetan oinarritu eta haiei erantzun, eta Alderdien esku-hartzea sustatu beharko luke, bereziki garapen bidean diren herrialdeak direnena, arlo nazionalen, azpinazionalen eta tokikoan. Gaitasunaren sustapena ikasitako ikasgaien bidez bideratu beharko litzateke, baita Konbentzio honen esparruan esfera horretan eginiko jardueri dagokionez ere, eta prozesu eraginkorra eta iteratiboa izan beharko luke, parte-hartzailea eta zeharkakoa, eta genero-alderdiak aintzat hartzen dituena.
3. Alderdi guztiek lankidetzan aritu beharko lukete garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek Akordio hau aplikatzeko duten gaitasuna hobetzeko. Herrialde garatuak diren Alderdiek garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdien gaitasuna sustatzeko ekintzetarako emandako laguntza areagotu beharko lukete.
4. Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek Akordio hau aplikatzeko duten gaitasuna areagotzen duten Alderdi guztiek (horretarako eskualdeko ikuspegiak, alde bikoak eta alde anitzekoak erabilita, besteak beste), gaitasuna sustatzeko ekintza edo neurri horien berri eman beharko dute tarteka. Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek Akordio honi eragina emateko ezartzen dituzten gaitasuna sustatzeko plan, politika, jardura edo neurri ororen exekuzioan eginiko aurrerabideak jakinarazi beharko dituzte tarteka.
5. Gaitasuna sustatzeko ekintzak Akordio hau ezar dadin babesteko egokiak diren erabaki

instituzionalen bidez sustatuko dira; Konbentzioaren esparruan ezarri diren eta Akordioaren zerbitzura dauden gisa horretako erabakiak barne. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, gaitasuna sustatzeko hasierako erabaki instituzionalei buruzko erabaki bat aztertu eta hartuko du bere lehen saio-aldian.

12. artikulua

Alderdiek lankidetzan aritu beharko dute publikoaren hezkuntza, prestakuntza, sentsibilizazioa eta parte-hartzea eta klima-aldaketari buruzko informaziorako sarbidea hobetzeko neurriak hartzean, aintzat hartuta neurri horiek duten garrantzia Akordio honen esparruan eginiko ekintzak hobetzeko.

13. artikulua

1. Elkarrekiko konfiantza sustatzeko eta aplikazio eraginkorra bultzatzeko asmoz, honen bidez ekintzarako eta babeserako gardentasun-esparru indartu bat ezarri da. Esparrua berez izango da malgua, Alderdien gaitasun desberdinak aintzat hartu ahal izateko, guztien esperientzian oinarrituta.
2. Gardentasun-esparruak malgutasuna emango die garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei –hala behar izanez gero–, artikulua honetako xedapenak aplikatu ahal izan ditzaten. Malgutasun hori artikulua honetako 13. lerrokadan aipatzen diren modalitateetan, prozeduretan eta gidalerroetan islatuko da.
3. Gardentasunaren esparruak oinarritzat hartuko ditu Konbentzioan aurreikusitako gardentasunerako akordioak eta, gainera, indartu egingo ditu, gutxien aurreratuta dauden herrialdeen eta garapen-bidean diren uharte-estatu txikien egoera bereziak aintzat hartuta. Esparrua modu erraztailean aplikatuko da, eta ez da ez intrusiboa ez zigortzailea izango, subiranotasun nazionala errespetatuko du eta Alderdiei beharrezkoak ez diren kargak ezartzea saihestuko du.
4. Konbentzioan aurreikusitako gardentasunerako akordioak, esaterako nazio-mailako komunikazioak, bi urteko txostenak eta eguneratzeko bi urteko txostenak, ebaluazio-prozesua eta nazioarteko azterketa eta nazioarteko kontsulta eta analisirako prozesua esperientziaren barnean sartuko dira, eta kontuan hartuko dira artikulua honetako 13. lerrokadan aurreikusitako modalitateak, prozedurak eta gidalerroak egiteko.
5. Neurrien gardentasun-esparruaren xedea klima-aldaketari aurre egiteko Konbentzioaren baitan hartutako neurrien ikuspegi argia ematea da, haren 2. artikuluan jasotzen den lez. Aurrekoa lortzeko, besteak beste, honakoak egingo dira: Alderdi bakoitzak nazio-mailan xedaturiko ekarpenen argitasuna areagotu eta horiekiko eginiko aurrerabideei buruzko jarraipena egitea erraztu, 4. artikuluan ezarritakoari jarraiki, baita Alderdiek 7. artikuluan ezarritakoari jarraiki hartutako egokitzapen-neurriena ere, horien barnean hartuta jardunbide egokiak, lehentasunak, premiak eta gabeziak, 14. artikuluan aipaturiko mundu-mailako oreka lortzeko oinarri gisa.
6. Laguntzarako gardentasun-esparruaren helburua Alderdiek emandako edo jasotako laguntzaren ikuspuntu argia ematea da, klima-aldaketari aurre egiteko 4, 7, 9, 10 eta 11. artikuluetan aurreikusitako neurrien testuinguruan, eta, ahal bada, prestatutako laguntza finantzario agregatuaren ikuspuntu osoa eskaintzea, betiere 14. artikuluan adierazten den munduko balantzearen oinarri gisa.
7. Alderdi bakoitzak aldizka informazio hau eman beharko du:
 - a) Iturrien araberako emisio antropogenoei eta hustulekuen araberako berotegi-efektuko gasen xurgatzeari buruzko txostena. Txosten hori egiteko Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, onaturiko Klima-aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldeak ontzat emandako metodologiak erabiliko dira.
 - b) Nazio-mailan xedaturiko ekarpena (4. artikuluari jarraiki) aplikatzean eta betetzean lortutako aurrerabideen jarraipena egiteko beharrezkoa den informazioa.

8. Alderdi bakoitzak, gainera, klima-aldaketari buruzko eta egokitzeko eginkizunari buruzko informazioa ere eman beharko luke, 7. artikuluari jarraiki eta hala badagokio.
9. Herrialde garatuak diren Alderdiek informazioa eman beharko dute, eta, laguntza ematen duten beste Alderdiek informazioa eman beharko lukete, garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiei finantzaketa gisa, teknologiaren transferentzia gisa eta gaitasunaren sustapen gisa eman zaien laguntzari buruz, 9, 10 eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.
10. Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek informazioa eman beharko lukete finantzaketa gisa, teknologiaren transferentzia gisa eta 9, 10 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera eskatu eta jaso duten gaitasunaren sustapen gisa jasotako laguntzari buruz.
11. Alderdi bakoitzak artikulua honen 7. eta 9. lerroketan eskatutakoarekin bat etorritz jakinarazten duen informazioa adituen azterketa teknikoaren mende jarriko da, 1/CP.21 erabakiari jarraiki. Garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdien kasuan, eta haien gaitasunak hala eskatzen badu, azterketa-prozesuak barnean hartuko du gaitasuna sustatzeko premiak zehazteko laguntza. Gainera, Alderdi bakoitzak 9. artikuluan xedaturikoarekin lotutako ahaleginetan eta nazio-mailan xedaturiko ekarpenen betearazpenean eginiko aurrerabideei buruzko azterketa erraztaile eta aldeaniztun batean parte hartuko du.
12. Lerrokada honetan aurreikusitako adituen azterketa teknikoak honakoak bilduko ditu: Alderdi interesdunak jasotako laguntza, hala badagokio, eta nazio-mailan xedaturiko ekarpenaren aplikazioa eta lorpena. Azterketa horren bidez, halaber, zehaztu egingo dira interesdunak hobe ditzakeen alderdiak, eta informazioak artikulua honetako 13. lerroketan adierazitako modalitateekiko, prozedurekiko eta jarraibideekiko duen koherentzia ere aztertuko da, aintzat hartuta Alderdi horri eman zaion malgutasuna artikulua honetako 2. lerroketan xedatutakoari jarraiki. Azterketan, arreta berezia jarriko zaie garapen-bidean dauden Alderdien nazio-mailako gaitasunei eta egoerei.
13. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, lehen saioaldian, eta Konbentzioaren esparruan gardentasunari buruzko akordioei dagokienez eskuratutako esperientzia aprobetxatuta, eta artikulua honetako xedapenak xehetasun handiagoz zehaztuta, modalitate, prozedura eta gidalerro komunak onartuko ditu, hala badagokio, neurrien eta babesaren gardentasuna bermatzeko.
14. Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntza emango zaie artikulua hau aplikatzeko.
15. Era berean, etengabeko laguntza emango da garapen-bidean dauden herrialdeak diren Alderdiek gardentasunaren gaitasuna areagotzeko.

14. artikulua

1. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, Akordio honen aplikazioaren balantzea egingo du aldizka, bere xedea eta epe luzeko helburuak (mundu-mailako balantzea) lortzeko eginiko aurrerabide kolektiboa zehazteko. Aurreko guztia modu global eta erraztailean egingo du, arintzea, egokitzapena eta aplikatzeko eta laguntza emateko baliabideak aztertuta, ekitatea nahiz eskura dagoen informazio zientifiko onena aintzat hartuta.
2. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, 2023an egingo du munduko lehen balantzea, eta, hortik aurrera, bost urtean behin, betiere besterik erabakitzen ez badu.
3. Munduko balantzearen emaitzak informazioa emango die Alderdiei, nazio-mailan erabakitzen duten moduan eguneratu eta hobetu ditzaten euren neurriak eta laguntza – Akordio honetan egokiak diren xedapenekin bat etorritz– eta klimarekin loturiko ekintzetan nazioarteko lankidetzan handitzeko.

15. artikulua

1. Honen bidez mekanismo bat ezarri da Akordio honetako xedapenen aplikazioa errazteko eta

haien betearazpena sustatzeko.

2. Artikulu honen 1. lerrokadan adierazitako mekanismoa adituz osatutako batzorde bat izango da; erraztea izango du helburu, eta modu gardenean jardungo du, hau da, ez da liskartsua eta zigortzailea izango. Batzordeak arreta berezia eskainiko die Alderdiek nazio-mailan duten egoerei eta gaitasunei.
3. Batzordea, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, lehen saio-aldian onartzen dituen modalitate eta prozedurekin bat etorri arituko da. Konferentzia horretan urteko txostenak aurkeztuko ditu.

16. artikulua

1. Alderdien Konferentziak, Konbentzioaren goi-mailako organoa izaki, Akordio honen inguruko Alderdien bilkura gisa jardungo du.
2. Akordio honen zati ez diren Konbentzioaren baitako Alderdiek behatzaile gisa parte hartu ahalko dute Akordio honen inguruko Alderdien bilkura den Alderdien Konferentziaren edozein saio-alditan egiten diren deliberazioetan. Alderdien Konferentziak Akordio honen inguruko Alderdien bilkura gisa jarduten duenean, Akordioaren baitako erabakiak Akordio honen Alderdi direnek bakarrik hartuko dituzte.
3. Alderdien Konferentziak Akordio honen inguruko Alderdien bilera gisa jarduten duenean, Akordio honetako Alderdi ez den Konbentzioko alderdi bat ordezkatzeko duen Alderdien Konferentziaren Mahaiko kide oro Akordio honetako Alderdien artean aukeraturiko beste kide batek ordezkatu du. Kide hori Akordio honetako Alderdiek aukeratu du.
4. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, maiz aztertuko du Akordio honen aplikazioa, eta bere eskumenen baitan, modu eraginkorrean aplikatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu. Akordio honek esleituriko eginkizunak beteko ditu.
 - a) Akordio hau betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen organo subsidiarioak ezarriko ditu.
 - b) Akordio hau aplikatzeko beharrezkoak diren bestelako eginkizunak gauzatuko ditu.
5. Alderdien Konferentziaren erregelamendua eta Konbentzioarekin lotuta ezarritako prozedura finantzarioak *mutatis mutandis* aplikatuko dira, Akordio honi dagokionez, betiere Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, besterik erabakitzen ez badu.
6. Idazkaritzak Alderdien Konferentziaren lehen saio-aldia deituko du, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, Akordio hau indarrean jarri ondoren programatzen den Alderdien Konferentziaren lehen saio-aldiarekin batera. Pariseko Akordioaren Alderdien bilkura den Alderdien Konferentziaren hurrengo ohiko saio-aldiak Alderdien Konferentziaren ohiko epeekin batera egingo dira, betiere Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren Alderdien bilkura gisa, besterik erabakitzen ez duen bitartean.
7. Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura den Alderdien Konferentziaren aparteko saio-aldiak Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, beharrezkotzat jotzen duen bakoitzean egingo dira, edo, bestela, Alderdien batek idatziz hala eskatzen duenean, betiere Idazkaritzak Alderdi eskaera jakinarazi ondorengo sei hilabeteen barruan Alderdien herenaren babesa jasotzen badu, gutxienez.
8. Nazio Batuen Erakundeak, haren organismo espezializatuek eta Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziak edota erakunde horien estatu kide edo behatzaile orok, Konbentzioaren Alderdi ez denean, behatzaile-rola egingo duten ordezkariak izan ahalko ditu Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango diren Alderdien Konferentziaren saio-aldietan. Akordio honek jorratzen dituen gaietan eskumena duen organo edo organismo nazional edo nazioarteko, gobernuko edo gobernuz kanpoko oro behatzaile izan ahalko da Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura izango den Alderdien Konferentzian,

betiere eskaera egin badio Idazkaritzari eta bertaraturiko Alderdien herenak edo gehiagok eskaera ukatzen ez badute. Behatzaileak eta haien parte-hartzea onartzeko artikuluko honetako 5. paragrafoan ezarritako erregelamendua jarraituko da.

17. artikulua

1. Konbentzioaren 8. artikuluan ezarritako Idazkaritzak egingo ditu Akordio honen idazkaritzalanak.
2. Idazkaritzaren zereginei buruzko Konbentzioaren 8. artikuluko 2. lerrokada, eta haren funtzionamendurako Konbentzioaren 8. artikuluko 3. lerrokada *mutatis mutandis* aplikatuko zaizkio Akordio honi. Idazkaritzak, gainera, Akordio honen testuinguruan esleitzen zaizkion bestelako eginkizunak eta Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, ezartzen dizkionak gauzatuko ditu.

18. artikulua

1. Konbentzio honen 9 eta 10. artikuluek ezarritako Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiarioak eta Organo Betearazle Subsidiarioak, hurrenez hurren, Akordio honen Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikorako Organo Subsidiario eta Organo Betearazle Subsidiario gisa jardungo dute. Bi organo horien funtzionamenduari buruzko Konbentzioaren xedapenak *mutatis mutandis* aplikatuko zaizkio Akordio honi. Akordio honen Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikoaren Organo Subsidiarioaren eta Organo Betearazle Subsidiarioaren saio-aldiak Konbentzioaren Aholkularitza Zientifiko eta Teknologikoko Organo Subsidiarioaren eta Organo Betearazle Subsidiarioen saio-aldiekin batera egingo dira, hurrenez hurren.
2. Akordio honen Alderdi ez diren Konbentzioaren Alderdiek behatzaile gisa parte hartu ahal izango dute organo subsidiarioen edozer saiotan egiten diren deliberazioetan. Organo subsidiarioek Akordio honen organo subsidiario gisa jarduten dutenean, Akordioaren esparruko erabakiak Akordioaren Alderdiek besterik ez dituzte hartuko.
3. Konbentzioaren 9 eta 10. artikuluei jarraiki ezarritako organo subsidiarioek Akordio honi begira interesgarriak diren gaien inguruko beren funtzioak betetzen dituztenean, Konbentzioan Alderdi bat ordezkatzeko organo subsidiarioen mahaiko kide oro (une horretan Akordioaren alderdi ez denean) Akordioaren Alderdietako kideen artean aukeraturiko beste batek ordezkatzeko du. Kide hori Akordio honetako Alderdiek aukeratzeko dute.

19. artikulua

1. Akordio honetan aipatzen ez diren organo subsidiarioak edo Konbentzioak edo haren baitan ezarritako bestelako akordio instituzionalak Akordio honen zerbitzura egongo dira, Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, hala erabakitzen badu. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, zehaztuko ditu organo subsidiario edo akordio horiek izango dituzten eginkizunak.
2. Alderdien Konferentziak, Pariseko Akordioaren inguruko Alderdien bilkura gisa, organo subsidiario eta akordio instituzional horiei bestelako orientazioak eman ahal izango dizkie.

20. artikulua

1. Akordio hau irekita egongo da sinatzeko eta Konbentzioaren Alderdi diren estatu-kideek eta integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeek berrestearen, onartzearen eta onestearen mende egongo da. Sinatzeko irekita geratzeko da, New Yorken dagoen Nazio Batuen egoitzan, 2016ko apirilaren 22tik 2017ko apirilaren 21era, eta sinadura-epea itxi eta biharamunetik aurrera geratzeko da atxikitzeko irekita. Berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeko tresnak gordailuzainaren esku utziko dira.

2. Akordio honetako Alderdi izatera igarotzen diren integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeek (haien estatu kideetako bat bera ere ez denean Alderdi) Akordio honetatik eratorritako betebeharrak guztiak bete beharko dituzte. Akordio honetako Alderdi diren estatu kide bat edo gehiago dituzten integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeen kasuan, erakundeak eta kasuan kasuko estatu kideek zehaztuko dituzte Akordio honen arabera dituzten eginbeharrak betetzeko erantzukizunak. Kasu horietan, erakundeak eta estatu kideek ezingo dituzte aldi berean baliatu Akordioaren bidez lortutako eskubideak.
3. Integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeek adieraziko dituzte, berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeke tresnen bidez, zenbaterainoko eskumena duten Akordio honen bidez indarrean diren alderdiei dagokienez. Erakunde horiek, halaber, beren eskumen-esparruarekin loturiko edozer aldaketa garrantzitsuren berri emango diote gordailuzainari, eta hark Alderdiei.

21. artikulua

1. Akordio hau indarrean jarriko da Konbentzioaren 55 Alderdik, gutxienez, berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeke tresnak gordailatu dituzten egunetik hogeita hamar egun igaro direnean. Hori bai, adierazitako Alderdi horien isurketa estimatuak % 55 izan beharko dira Akordioa indarrean jartzeko.
2. Artikulu honen 1. lerrokadaren ondorioetarako soilik, «berotegi-efektuko munduko gas-isurketa guztiak» esaten denean, honako hau ulertuko da: Konbentzioaren Alderdiek Akordio hau onetsi den egunean edo lehenago jakinarazi duten kantitate eguneratuena.
3. Akordio hau berresten, onartzen edo onesten duen edo hari atxikitzen zaion estatu edo integrazio ekonomikoko eskualdeko erakunde bakoitzerako, eta betiere, artikulu honetako 1. lerrokan ezarritako indarrean jartzeko baldintzak bete direnean, Akordioa hogeita hamargarren egunean jarriko da indarrean, estatuak edo integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeak berresteko, onartzeko, onesteko edo atxikitzeke tresna gordailatu duen egunetik zenbatzen hasita.
4. Artikulu honen 1. lerrokadaren ondorioetarako, integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeak gordailatzen duen tresna ez da kontuan hartuko haren estatu-kideek utzi dituzten besteez gain.

22. artikulua

Konbentzioaren 15. artikuluko xedapenak, zuzenketak onesteari buruzkoak, *mutatis mutandis* aplikatuko dira Akordio honetan.

23. artikulua

1. Konbentzioaren eranskinak onetsi eta zuzentzeari buruzko Konbentzioaren 16. artikulua eranskinak *mutatis mutandis* aplikatuko dira Akordio honetan.
2. Akordioaren eranskinak Akordioaren zati izango dira, eta esanbidez besterik xedatzen ez bada, Akordio honi eginiko edozer erreferentzia haren eranskinari eginiko erreferentzia izango da aldi berean. Eranskinetan gai zientifikoak, teknikoak, prozedurazkoak eta administratiboak jorratzen dituzten zerrenda, formulario eta bestelako materialak bakarrik sartu ahalko dira.

24. artikulua

Konbentzioaren 14. artikuluko xedapenak, eztabaidak konpontzeari buruzkoak, *mutatis mutandis* aplikatuko dira Akordio honetan.

25. artikulua

1. Artikulu honen 2. lerrokadan xedatutakoa izan ezik, Alderdi bakoitzak boto bakarra izango du.
2. Integrazio ekonomikoko eskualdeko erakundeek beren boto-eskubidea baliatuko dute beren eskumenekoak diren gaitan. Haien boto kopurua Akordio honetako Alderdi diren estatu kideen kopuruaren bera izango da. Erakunde horiek ez dute botorako eskubiderik baliatuko baldin eta euren estatu kideetako edozeinek berea baliatzen badu, eta alderantziz.

26. artikulua

Nazio Batuen idazkari nagusia izango da Akordio honen gordailuzaina.

27. artikulua

Akordio honi ezingo zaio erreserbarik egin.

28. artikulua

1. Edozein Alderdik salatu ahal izango du Akordio hau. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat igorri beharko dio gordailuzainari edozein unetan, betiere hiru urte igaro badira Alderdi horri dagokion Akordioa indarrean jarri zenetik.
2. Salaketak ondorioak izango ditu gordailuzainak dagokion jakinarazpena jaso zuenetik urtebete igaro denean, edo, geroago, jakinarazpenean adierazten den egunean.
3. Konbentzioa salatu duen Alderdiak Akordio hau ere salatu duela ulertuko da.

29. artikulua

Akordio honen jatorrizkoa (jatorrizkotzat joko dira, halaber, arabierazko, txinerazko, espainoleko, frantsesezko, ingelesezko eta errusierazko testuak) Nazio Batuen idazkari nagusiari emango zaio gorde dezan.

Parisen EGINA, bi mila eta hamabosteko abenduaren hamabian.

HORI GUZTIORI AITORTUZ, behean adierazitakoek, horretarako baimena jaso ondoren, Akordio hau sinatu dute.
